

*2020*  
*KOLDO ELEIZALDE*  
*LEHIAKETAK*  
*XXXV. edizioa*



*Jpuina • Poesia • Bortsoa • Komikia*

Antolatzailea:



Begarako Udala  
Euskara batzordea

**Argitaratzailea:** Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzua

**Azaleko irudia:** Jon Balentziaga

**Diseinua eta maketazioa:** Gertu Inprimategia. Oñati.

**Inprimategia:** Gertu Inprimategia. Oñati

**Lege gordailua:** SS 42-2015

|              |   |
|--------------|---|
| SARRERA..... | 5 |
|--------------|---|

## *Ipuina*

### 1. taldea:

|                                                         |    |
|---------------------------------------------------------|----|
| Saria: <b>Kenai magoa</b> . Harri Izagirre.....         | 7  |
| Saria: <b>Manuel eta ipuinak</b> . Xuban Beristain..... | 11 |
| Saria: <b>Bi marrubiak</b> . Jone Lizaur .....          | 15 |

### 2. taldea:

|                                                            |    |
|------------------------------------------------------------|----|
| Saria: <b>Barnetegi misteriotua</b> . June Contreras ..... | 19 |
| Saria: <b>Ponpak airean</b> . Jurgi Larrea.....            | 23 |
| Saria: <b>Denok gara lagunak</b> . Carla Beitia .....      | 27 |

### 3. taldea:

|                                                                    |    |
|--------------------------------------------------------------------|----|
| Saria: <b>Nerearen mozzorro magikoa</b> . Amets Txintxurreta ..... | 31 |
| Saria: <b>1944</b> . Jon Letona .....                              | 37 |
| Saria: <b>Nire arkatx magikoa</b> . Ainara Revilla .....           | 43 |

## Familia

|                                                                                                        |    |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------|----|
| Saria: <b>Intxaurrondoko etxetxo</b> . Enara Urrutia eta Oihana Retegi.....                            | 49 |
| Saria: <b>Ujue usotxo</b> . Jose Antolin Pescador, Oier Pescador,<br>Ane Pescador eta Marian Cid ..... | 53 |
| Saria: <b>Nahi duzuna</b> , Nora. Miren Irizar eta Maddi Arzamendi .....                               | 57 |

### 4. taldea:

|                                                                          |    |
|--------------------------------------------------------------------------|----|
| 1. saria: <b>Gerratik ihesean</b> . Ander Alcaide eta Maddi Martin ..... | 65 |
| 2. saria: <b>Bihotzik gabeko panpina</b> . Maite Errasti .....           | 75 |
| 3. saria: <b>Ur eta Elaiaren abenturak</b> . Kaiet Heis.....             | 79 |

### 5. taldea, ipuina:

|                                                                      |     |
|----------------------------------------------------------------------|-----|
| 1. saria: <b>Balkoi ilustratuak</b> . Ibai Redondo .....             | 87  |
| 2. saria: <b>Birazu bihotzeko maratila</b> . Mari Joxe Azurtza ..... | 103 |
| 3. saria: <b>Bi hitz</b> . June Arando .....                         | 111 |

## *Poesia*

### 5. taldea, poesia:

1. saria: **Esan nahiak**. Aroa Elortza.....119
2. saria: **Itxialdiak eragindakoak**. Ainhoa Pardina .....125
3. saria: **Joan etorriak**. Aritz Alustiza.....131

## *Bortzoa*

### 1. taldea:

- Saria: **Sare sozialak**. Aranzadi ikastolako 5. mailako ikasleak .....137
- Saria: **Maitasuna**. Aranzadi ikastolako 5. mailako ikasleak .....141

### 3. taldea:

1. saria: **Normaltasun berria**. Joanes Plazaola .....145
2. saria: **Koronabirusa**. Jon Altuna .....149

## *Komikia*

### 1. taldea:

- Saria: **Edabe magikoa**. Uxue Vivas .....153
- Saria: **Timi**. Oihana Tabares .....157

### 2. taldea:

1. saria: **Ez laga biharko gaur egin dezakezuna**. Maryum Bibi.....159
2. saria: **Gezurren ondorioak**. Muhammad Abdullah .....161

### 3. taldea:

1. saria: **2020 San Ferminak**. Jon Altuna.....163
2. saria: **2020 urte borobila**. Jon Altuna .....165

Beste urte batez, esku artean daukazue Koldo Eleizalde literatur lehiaketako idatzizko lan sarituak. Idatzizkoak diogu, izan ere, Koldo Eleizalde lehiaketara aurkeztutako eta saritutako ahozko generoetako lanak (antzerkiak, ipuin-kontaketak...) Interneten aurkitu ahal izango dira honako helbidean: <https://euskara.bergara.eus/grabaketak>.


Aurten, gainera, gure aldian inoiz bizi gabeko egoera batean ondutako lanak dira gehienak, eta berezi egiten ditu horrek, itzal luzea izango duen gertakari baten lekuko baitira. Baina pandemia gorabehera, Bergaran euskara eta euskarazko sorkuntzarekiko lotura sendoa dagoela erakusten du jaso dugun lan kopuruak.

Ikusi dugu zein hauskorrak diren askotan lortutzat eman izan ditugun zenbait helburu, eta horrek euskaraz bizitzea eta gure kulturaz gozatzea jomuga duten ekimenen garrantzia gogorarazi digu. Beraz, eskerrik asko euren lanak bidaliz lehiaketan parte hartu duten bergararrei; eta nola ez, zorionak irabazleei. Eta irakurle horrek goza dezazun paratutako bilduma hau aletxo bat izan dadila gure hizkuntzaren eta kulturaren transmisioan.

**Ekaitz Aranberri**

EUSKARA ETA  
GAZTERIAKO BATZORDEBURUA





Harri Izagirre  
Lehenengo taldea  
Saria

*Ipuina*

*Balantzia*  
20

*Kenai magoa*





## *Kenai magoa*


Bazen behin Kenai izeneko mutil bat. Altua zen, betaurrekoak zituen, ile motza zuen eta begi urdinak zituen. Magia izugarri gustatzen zitzaion. Umila eta jatorra zen. Aitarekin bizi zen, ama mendiko istripu batean hil zelako.

Kenai Bergarakoa zen, baina aita eta bera Londresera joan ziren bizitzera. Aitaren izena Joanes zen, baina Londresen James deitzen zioten. Kingston izeneko auzoan bizi ziren.

Eskolan, bere gelakoek gaizki tratatzen zuten Kenai, burla egiten zioten, gauzak kendu... Egun batean, eskolako "Abrakadabra" magia taldean izena eman zuen. Magia truko ugari ikasi zituen: "Expekiarmus", "Sektonsenpra" "Riddikulus" eta beste batzuk.

Kenaik magia defenditzeko erabiltzen zuen, inoiz ez besteei mina emateko. Magia taldekoak bere lagun minak egin ziren eta Kenai pozik bizi izan zen.





Xuban Beristain  
Lehenengo taldea  
Saria

*Ipuina*

*Balantziana*  
20

*Manuel eta ipuinak*



## *Manuel eta ipuinak*

*B*azen behin ipuinen kontra zegoen heroi bat, Manuel izenekoa.


Txikitan, ipuin bat irakurtzen ari zela, ipuina sartu zen eta ipuineko munstroak esan zion ipuinetik irteten bazen handik aurrera irakurtzen zituen ipuin guztietan munstroa agertuko zela.

Halako batean, erabaki zuen ipuinak irakurri nahi zituela eta munstroari aurre egi-tera joan zen bere base nagusira. Hasierako ipuina sartu zen eta han topatu zuen munstroaren base nagusia, 2. orrialdean. Borroka gogorra izan zuten eta Manuelek galdu egin zuen. Munstroak ipuinetik kanpo, zabortegira bota zuen Manuel.

Udaltzainek Manuel aurkitu zutenean etxera eraman zuten eta Manuelek udaltzainei esan zien berarekin batera ipuina sartzeko. Denak sartu ziren liburura eta den-en artean irabazi zioten munstroari.

Ipuin hori museo batean jarri zuten hesituta eta zaintzaile mordo batekin, eta handik aurrera ume guztiek beldurrik gabe irakurri ahal izan zuten.





Jone Lizaur  
Lehenengo taldea  
Saria

*Ipuina*

*Balantziana*  
20

*Bi marrubiak*





## *Bi marrubiak*

*B*aziren behin bi marrubi handi-handiak eta dagoeneko gorri-gorri zeudenak.

Bi mutiko hurbildu ziren marrubiak jatera, baina bietako batek esan zuen:

–Zergatik ez ditugu egiten bi izozki?

–Bale –esan zuen besteak.

Eta umeek eskuetan marrubiak hartu eta etxera eraman zituzten. Etxera iritsi zirenean kutxiloa hartu eta moztu zituzten bi marrubiak, eta poteetara bota zituzten.

Ondoren, izozkia egiteko esnearekin nahastu zituzten eta hozkailuan sartu.

Mutikoak kanpora joan ziren eta, bat-batean, bi marrubiak berriro marrubi bihurtu ziren beraien zatiak elkartuta.

Salto bat eman eta poteetatik kanpora atera ziren. Baina pentsatu zuten mutikoek hozkailua zabaltzen bazuten konturatuko zirela beraien izozkiak ez zeudela. Orduantxe, beraien ondoan, txikitutako okela ikusi zuten. Hartu zuten okela eta poteetara bota zuten mutikoak engainatzeko.

Momentu horretan, norbaitek hozkailua zabaldu eta bi marrubiek ateratzeko aprobetxatu zuten.

Hozkailua zabaldu zuen neska beste alderantz joan zen, eta marrubiek esan zuten:

–Eskerrak!!

Orduan, leiho bat ikusi zuten zabalik. Lehenengo saltoan ez zuten lortu igotzea, baina bigarrenean bai! Asko kostatu zitzairen beraien lagunengana joatea, baina egun bat pasa ostean iritsi ziren beraien lekuetara.

Eta marrubiek esan zieten beste guztiei:

–Ez daukagu ezer!

Eta besteeek esan zuten:

–Arrazoi duzue!

Orduan, bi marrubiek esan zieten besteei onena izango zela etxetxo bat egitea egur zatiekin. Eta joan ziren egurren bila eta lau egunen ostean bukatu zuten etxea, eta horrenbeste lan egin zutenegaz ahaztu egin zitzairen etxe barrukoa egitea. Gaua zenez ezer gabe lo egin behar izan zuten etxe barruan. Hurrengo egunean jarraitu zuten lanarekin eta sei egun pasa eta gero bukatu zuten.

Eta hementxe bukatzen da marrubien abentura.

Orain bi mutilengana joango naiz.

Izozkia hartu zuten, miazkatu eta buaj! Desizoztu zirenean ikusi zuten okela zela eta oihu handi-handia egin zuten.

Hemen bukatzen da ipuina.



June Contreras  
Bigarren taldea  
Saria

*Ipuina*

*Balantzia*  
20

*Barnetegi misterioitsua*



## *Barnetegi misteriotsua*

*J*ulene, Ane, Peru eta Unai Lekeitioko 4. mailako ikasleak dira. Urduri daude bihar Bergarako barnetegi batera doazelako.

Julenek hamar urte ditu eta ile luzea eta marroia dauka. Julene oso ausarta da. Ane bere lagunik onena da, hamar urte ditu eta ile luzea eta horia dauka. Beti dago orrazten, pija samarra delako. Unaik hortzetako aparatua erabiltzen du eta oso beldurtia da. Peruk begi urdin poli-politak ditu; gauza asko dakizki, oso jakintsua da. Talde bikaina osatzen dute.

Eguna iritsi da. Autobusez etorri dira. Hiru egun igaro behar dituzte bertan, horregatik bakoitzak maleta handi bat ekarri du.

Egunean zehar ekintza ugari egin dituzte. Zoragarri pasa dute.

Gaua, berriz, ez da hain ona izan.

–Zer dira zarata horiek? –galdetu du Unaik gaueko hiruretan esnatuta.

–Lasai, Unai! –erantzun dio Julenek.

–Zure etxetik olatuen zarata entzuten da eta ez zara beldurtzen. Horiek mendiko soinuak izango dira –azaldu dio Peruk.

Eta lasai lo egiten jarraitu dute guztiek.

Hurrengo egunean ere oso ondo pasa dute: mendi buelta, gailetak egin, diskoteka...

Gaua iristerakoan berriro entzun dira zaratak.

–Ai ama!!! Zer da hori? –garrasi egin du Anek.

Lau lagunak altxatu eta misterioa argitzera joan dira.

Zaratak jantokitik entzuten dira.

–Leihotik dator zarata –esan du Anek.

–Haizea izango da... –azaldu die Peruk.

–Goazen begiratzera –esan die Julenek.

–Niri beldurra ematen dit –esan die dardarka Unaik.

Lau lagunak leihora hurbildu eta baserritarrez jantzitako amama zahar bat ikusi dute, soka bati lotuta.

–Nor zara? –galdetu dio Julenek.

–Eta zer demontre egiten duzu hemen? –harrituta Anek.

–Neska-mutilak, ez nuen nahi zuek beldurtzea. Bitorianatxo dut izena eta urte-ro Bergarako jaietan Seminarioko teilatutik udaletxera soka batetik jaisten naiz jaiet hasiera emateko.


–A, bai!! Bitorianatxo! –esan du Peruk–. Bergaran lehengusuak ditut eta iaz ikusi zintudan sokatik jaisten.

–Baina, zer demontre egiten duzu gaur hemen? –galdetu dio berriro Unaik.

–Beldur izugarria diot jaitsierari. Horregatik, urtean zehar baserri eta zuhaitzen artean ibiltzen naiz praktikak egiten.

Lagun guztiak barrez hasi dira eta lasai lo egiten jarraitu dute.





Jurgi Larrea  
Bigarren taldea  
Saria

*Ipuina*

*Balantziana*  
20

*Ponpak airean*





## *Ponpak airean*

Bazen behin Peru izeneko hamar urteko mutil bat. Bergaran bizi zen, bere arreba eta gurasoekin. Zirkuko ikuskizunak gustatzen zitzaizkion: malabaristak, trapezistak, magoak... zirkuko gauza guztiak! Horiek imitatzen orduak pasatzen zituen.

Egun eguzkitsu batean, Peru bere etxeko terrazan xaboiarekin ponpa erraldoi batzuk egiten zegoen. Izugarritzko ponpak ziren, hainbat haur sartu ahal ziren bertan. Eguna ponpak egiten igaro zuen, eta gaua heldu eta ohera joan zenean, amets berezi bat eduki zuen. Goizeko ponpa batean sartzen zen eta hegan joaten zen.


Amets horretan, herriko kaleak hutsik ikusten zituen; Ibargarai, Espoloia, Boni Lascurain... denak huts-hutsik. Eta denda gehienak itxita! Ikusten zuen jende bakarra leihoetan eta balkoietan zegoen. Bat-batean, haizeak Labegaraietaraino eraman zuen, bere lagun onenaren etxera. Laguna balkoian zegoen, diabolarekin jolasten. Peruk laguna gonbidatu zuen berarekin ponpan sartzera. Jokinek baietz esan eta motxila bat ekarri zuen. Motxilan, ura, janaria, argazki-kamera bat eta denbora-pasak zituen.

Biak ponpan zeudela, haize-bolada handi batek Aumategiraino eraman zituen. Hango frontoian Erik zegoen, pilotekin malabarrak egiten. Erik harritu egin zen lagunak ponpan ikusi zituenean. Bera ere ponpan sartu zen, pozik. Aumategitik behera joan ziren hiru lagunak eta horrela Bergarako toki ezberdinak bisitatu zituzten: San Antonio, alde zaharra, Gorla... Dena ikusita zeukaten, baina goitik askoz ere politagoa zen. Argazki mordo bat atera zituzten. Gainera, Peruk ponpa txiki gehiago egin zituen ba-

rruan, Jokin diabolorekin jolasten zen ponpa apurtu gabe, eta Erikek malabarrak egi-  
ten zituen jateko eramandako sagarrekin. Oso esperientzia dibertigarria zen.

Arane inguruan zeudenean haizea gogor jotzen hasi zen berriz. Abiadura handia  
hartu zuten eta horrelako batean San Pedroko kanpandorrearen kontra jo zuten. Mo-  
mentu horretan Peru esnatu egin zen, susto handia hartuta.

Izerditan zegoen, arnasestuka. Lasaitzeko komunera jaiki zen. Aurpegia garbitu  
zuen. Logelara itzuli eta, badaezpada, argazki-kamera piztu zuen. Bertan ikusi zi-  
tuen goitik ateratako Bergarako argazkiak. Hiru lagunak argazkiak ere hor ziren: Jo-  
kin diabolorekin, Erik malabarrekin eta Peru bera ponpak egiten. Bere ametseko iru-  
diak ziren!



Carla Beitia  
Bigarren taldea  
Saria

*Ipuina*

*Balantzia*  
20

*Denok gara lagunak*



## *Denok gara lagunak*

*B*azen behin Noak, Maddik, Paulak, Izarrek eta Julenek osatzen zuten lagun kua-drilla bat. Hamar urte zituzten eta elkarrekin jolastea asko gustatzen zitzaien.

Udaberriko goiz batean ikastolako patioan zeuden eta Julen bere lagunekin jolas-ten zegoen. Bat-batean, mutil kuadrilla bat Juleni burla egiten hasi zen neskekin jolas-ten zegoelako.

Julenek galdetu zien zergatik ezin zuen neskekin jolastu eta ea mutilek mutilekin bakarrik jolastu behar zuten.

Oierrek eta bere lagunak ez zuten gustuko neskekin jolastea eta ez zuten onartzen neskak beste mutil batzuekin dibertitzen egotea.

Ikusita iskanbila ez zela bukatzen eta ez zituztela bakean utziko, Juleni ideia bat bururatu zitzaion eta Oierri eta bere lagunei honela esan zien:

–Proposamen bat egingo dizuet! Egun oso bat pasatuko dugu elkarrekin eta denon artean proposatutako jolasak egingo ditugu. Gaizki pasatzen badugu nik zuei arrazoia emango dizuet esanez neskekin jolastea aspergarria dela. Baina, ondo pasatzen badugu, zuek guri eman beharko diguzue arrazoia.

Oierrek Julenen proposamena entzun zuen, eta bere lagunekin hitz egin eta pro-posamena onartzea erabaki zuten.

Larunbat goiza heldu zen, ogitartekoak hartu eta Julenen etxe azpian elkartu ziren denak. Han, denen artean erabaki zuten herriko parkera joatea.

Parkera iritsi eta denek adostutako jolasetan ibili ziren, barre eta algara artean.

Konturatu orduko bazkaltzeko ordua iritsi zen, eta denek ogitartekoak hartu eta istorioak kontatzen zituzten bitartean bazkaldu zuten.


Ondoren, indarrak berriztuta, berriz ere jolasten jarraitu zuten. Hain ondo ari zirenez pasatzen, arratsalde osoan ez zioten utzi jolasteari!

Ordulariari begiratu eta, penaz, etxera joateko ordua zela ohartu ziren.

Hain ondo pasatu zuten, ez zegoen hitzez esan beharrik nork zuen arrazoia. Oierrek barkamena eskatu zion Juleni, esandako gauza zatar guztiengatik.

Denak konturatu ziren ez zaiola begiratu behar neska edo mutila izateari! Lagunak izatea eta elkarrekin dibertitzea dela garrantzitsuena!





*Amets Txintxurreta  
Hirugarren taldea  
Saria*

*Ipuina*

*Balantzia  
20*

*Nerearen mozorro magikoa*





## *Nerearen mozorro magikoa*

Bazen behin neskatala bat, Nerea izena zuena. Hamaika urte zituen, argala eta al-tua zen, eta asko gustatzen zitzaion jostea eta baita marraztea ere. Naturazalea eta kirolzalea ere bazen, eta gehien gustatzen zitzaion kirola saskibaloia zen. Lagun asko zituen eta asko gustatzen zitzaion besteei laguntzea.

Urtarrileko egun batean, Nerea lo-aurpegiarekin joan zen ikastolara, baina lehenengo orduan plastika zutela jakiterakoan alaitu egin zitzaion aurpegia. Irakasleak “gaur hasiko gara inauterietako mozorroa egiten” esan orduko bere aurpegiko irribarrea hantitu egin zitzaion, asko gustatzen zitzaizkiolako horrelako lan zailak egitea.

Egunak joan eta egunak etorri, Nereak jada bukatu zuen bere mozorroa, beste ikaskideek bezala, baina konturatu zen ikastolatik kanpoko mozorroa ere prestatu behar zuela. Nereari ez zitzaion ideiarik bururatzen eta Googlen emakume ospetsuen bila aritu zen. Orduak eta orduak bilatzen ibili ondoren, Marie Curie-ren argazki bat ikusi zuen, eta ideia ona iruditu zitzaion emakume horretaz mozorrotzea, bere garaian oso zientzialari famatua izan zelako, esfortzu handia egin zuelako zientziaren munduan sartzeko eta, horrez gain, bi arlo desberdinetan (Fisikan eta Kimikan) Nobel Saria irabazi zuen lehenengo emakumea izan zelako, eta Pariseko Unibertsitatean irakasle lanetan jardun zuen lehenengo emakumea ere izan zelako. Gainera, Marie Curie-k bi elementu kimiko desberdin aurkitu zituen, erradioa eta polonioa.

Nereak inori ez zion esan zer mozorro eramango zuen, ezta gurasoei ere. Sorpresa bat izatea nahi zuen eta lan handia egin zuen mozorro hura prestatzen.

Egunak igaro ondoren, inauteri festak heldu ziren, eta Nerea eta bere ikastolako lagunak kalera irten ziren inauterietako dantzak egitera. Oso ondo pasatu zuten guztiek, baita irakasleek ere. Gainera, hurrengo urtean DBHra pasatu behar zirenez, ez zuten horrelako inauteririk ospatuko ikastolan gehiagotan.

Nereak egun hartan amets onak eduki zituen, bere mozorroan pentsatzen, eta beti galdetzen zion bere buruari... “Gustatuko al zaie, nire mozorroa?”

Hurrengo eguna iritsi zen, eta txorien kanta zaratatsuek esnatu zuten Nerea. Oso alai zegoen jaikitzerakoan, eta jantzi behar zuen mozorroa berak utzi zuen tokian zegoela ziurtatu zuen. Bai, hantxe zegoen, bere aulkian ondo lisatuta eta ondo utzita, bere botoi distiratsuekin eta tela koloretsuekin.

Gosaltzera joan zen eta bere gurasoak jada gosaltzen zeuden. Aitak esan zion:

–Zer, Nerea? Gaur oso pozik jaiki zara, ezta?

–Bai, oso pozik nago nire mozorroa zuei erakusteko irrikan nago-eta!

Eta amak erantzun zion:

–Eta gu ere irrikan gaude, zuk guri mozorroa erakusteko. Zu izanda, oso ondo egongo da eginda-eta.

Eguerdia iritsi zen, mozorrotzeko unea. Nereak zientziarako erabiltzen diren kristalezko edalontzi antzekoak egin zituen paperarekin eta mahai gainean utzi zituen prest.

Nerea mozorroa janzten hasi zenean zerbait arraroa sumatu zuen gorputzean, hautsa zela iruditu zitzaion eta, bat-batean, Nobel Saria jasotzen ari zen eszena-toki batean, milaka pertsona berari begira zeuden bitartean.

–Eta Fisikan eta Kimikan, Nobel Saria irabazi duena da... Marie Curie!!!

Nereak pentsatu zuen ametsa izango zela soilik, eta bere hagin zorrotzekin hagin-ka egin zion bere eskuari, eta min eman zion; horrek esan nahi zuen ez zela amets bat! Eta pentsatu zuen... “Mozorroa kentzen badut, zer gertatuko da?”. Nerea mozorroa kentzen hasi zen eta bere logelara itzuli zen.

Bat-batean, bere ama logelara sartu eta esan zion:

–Hara! Oso ondo egin duzu mozorroa, Nerea! Horrela benetako Marie Curie ematen duzu!

–Eskerrik asko, ama! –erantzun zion Nereak.

Eta Nerea konturatu zen bere oihal berezi eta politenekin egin zuela bere mozorroa, eta oihal horiekin, seguruenik, magiko bihurtuko zela, benetako Marie Curie-ren jantzia ematen zuelako, eta Marie Curie-ren garaira joaten zela mozorroa janzterakoan.

Bere gurasoei kontatu zien dena eta esan zien kaxa batean gordetzeko, horrela momentu berezietan erabili ahal izango zutela eta urteetan atzera bidaiatzeko erabili. Horrela, mozorroa opari bihurtu zen familiarentzat.

Une horretan bertan, gurasoek esplikatu zioten Nereari opari politenak bihotzez egindakoak direla, eta, kasu honetan, opari bat ez izan arren, Nereak bihotzez egindako mozorro bat zela eta egiten zegoen bitartean gauza magikoak gerta zitezkeela, nahiz eta zuk ez ziurtatu horrelakorik gertatzen ari zenik.





Jon Letona  
Hirugarren taldea  
Saria

*Ipuina*

*Balantziana*  
20

1944



*1944*

**1** 944. urteko abenduaren 15a.

Ardenas-eko borrokaren erdian, hegazkin alemaniar bat John Ryan pilotu estatubatuarri segika zebilen, bata besteari tiroka.

Etsaiaren tiro batek jo zuen eta hegazkinaren motorretako batek sua hartu zuen. John-en hegazkina oso azkar erortzen hasi zen eta, John-ek erreakzionatu ahal izan aurretik, lurraren aurka talka egin zuen.

Zelai baten erdian esnatu zen. Oso lausoturik ikusten zuen baina, poliki-poliki, ikusmena berreskuratzen joan zen. Bere ingurura begiratu zuen. Ondoan bere hegazkina zeukan guztiz suntsituta eta sutan. Irratitik bere kideekin komunikatzen saiatu zen, baina balaz josita zegoen aparatua.

Bat-batean, min handia sentitzen hasi zen. Izterrera begiratu eta metalezko barra bat zeukan sartuta. Odola, poliki-poliki, bere arropa denak zikintzen hasi zen. Orduan, botikina topatzea erabaki zuen. Topatu zuenean, indar handiarekin barra hura atera eta, ondoren, oso azkar bendatu zuen zauria odol gehiago ez galtzeko.

Denbora bat egon zen konboi estatubatuarren bat pasatzeko itxaroten eta, azkenean, jeep\* bat entzun zuen berarengana gerturatzen. John zutik jarri zen baldarki, baina hitz

haiek ez ziren bere hizkuntzan, alemanez baizik. John korrika irteten saiatu zen, baina min gehiegi ematen zion. Orduan, pistola atera eta autoko denak tirokatu zituen. Hirurak lurrera erori ziren bizirik gabe, eta John-ek aprobetxatu eta autoa hartu zuen.

Orduak egon zen elurrez estalitako basoetatik gidatzen. Herri batera heldu zenean ezkutatuta geratu zen, tropa naziak kaleetan zehar desfilatzen ari zirelako. Herriko etxe guztiak suntsituta zeuden. Kalearen ertz batean gizon bat zegoen besoa jasota, Adolf Hitler zen.

–Hori bai dagoela burutik jota! –esan zuen John-ek.

Orduan, bidaiarekin segitzea erabaki zuen, baina autora bidean zihoala, norbaitek fusil baten atzeko aldearekin jo zuen eta John-ek konortea galdu zuen. Esnatu zenean bulego batean zegoen, aulki batera lotuta. Hasieran lausotuta ikusten zuen, baina denbora batera inguruko gauzak desberdintzen hasi zen. Aurrean Hitler zeukan.

–Esnatu zara! Lau ordu zoaz lotan! Bihar goizean gas-ganbera batera eramango zaituzte –esan zion erdi barrezka, eta gero joan egin zen.

John bakarrik geratu zen bulegoan. Orduan, gogoratu zuen labana bat zeukala poltsikoan gordeta eta hartzen saiatu zen. Lortu zuenean, aulkira lotzen zuen soka moztan hasi zen.

Soka askatu zuenean bulego osotik hasi zen bueltaka armaren baten bila. Armairu bat zegoen gelaren albo batean. Armairuaren atea zabaldu eta han topatu zuen bakarra *luger\** bat izan zen. Hartu eta korridorera irten zen. Ez zegoen inor, eta irteerarantz joan zen. Eraikin handia zen, bi edo hiru solairukoa. Noizean behin bi soldadu pasatzen ziren patruilatzen, eta kasu horietan, John ezkutatu egiten zen. Bi soldadu ari ziren irteera zaintzen eta John-ek, pistola atera, eta biei tiro egin zien. Ondoren, bietako baten trajea hartu eta jantzi egin zuen. Orduan, atea ireki eta kanpoaldera irten zen. Eguraldi txarra egiten zuen; alemanak juduak kamioietan sartzen ari ziren; batzuetan, familiako gurasoei tiro egin eta umeak bakarrik lagatzen zituzten. Alde batzuetan *kartoffel\** batzuk zeuden, baita tanke *panther\** eta *tiger\** batzuk ere, baina, urrunean, besteetatik desberdintzen zen kamioi bat zegoen. Bi aldiz pentsatu gabe korrika kamioira igo zen eta barruko denak bera apuntatzen hasi ziren.

–Ez tirokatu! –esan zuen barruko batek–. Zu John Ryan, Texas-ekoa zara, ezta?

–Bai.



–Ez genuen zu berriz ikusterik espero.

–Ba, hemen nago.

–Nora joan nahi duzu?

–Etxera, mesedez.

Bidaian bere abenturak kontatu zizkien bere lagunei. Bidaiak hamabi egun iraun zituen. Bere herrira heldu zenean dena suntsituta zegoen, eta urrunetik andre bat eta ume bat zetozen berarengana. Bere emaztea eta semea ziren, eta besarkada handi bat eman zien suntsipen guztiaren erdian.

*\*Jeep: Auto marka bat.*

*\*Luger: Bigarren munduko gerran alemanek erabilitako pistola mota bat.*

*\*Kartoffel: Amerikarrek soldadu alemanei jarri zieten ezizena.*

*\*Panther eta tiger: Bi tanke mota.*







Ainara Revilla  
Hirugarren taldea  
Saria

*Ipuina*

*Balantzia*  
20

*Nire arkatz magikoa*



## *Nire arkatz magikoa*

*K*aixo, ni Alex deitzen naiz. Eta gaur... nire urtebetetzea da! IUJUUU! Gaur ha-maika urte bete ditut, eta astelehena da. Horrek esan nahi du ikastolara joan behar izan dudala.

Barkatu ez badut nire burua egoki aurkeztu, hain pozik nago nire urtebetetzea delako...! Ez dut anai-arrebarik, seme bakarra naiz. Betaurrekoak ditut eta, nire ustez, mutil lasaia naiz. Ez zait batere gustatzen oihu egitea. Irakurtzea asko gustatzen zait; batez ere, “Geronimo Stilton” eta “Marvel”en komikiak.

Nire ondoan, ikasgelan, Marko izeneko mutil bat egoten da. Bera oso isila da, ia ez du hitz egiten. Beti arropa urdin edo beltza janzten du. Bere ama pitonisa da eta bere aita magoa. Gaur, klasean sartu naizenean, Marko hurbildu zait eta urdina eta beltza den arkatz bat eman dit.

–Zorionak, Alex! –esan dit Markok, ni arkatzari begira nengoen bitartean.

Burua altxatu dudanean, Markori “eskerrik asko” esateko, jada ez zegoen nire aurrean.

Nire eserlekuan jarri naiz, eta ingeleseko irakaslea gelara sartu da. Ni oso baldarra naiz eta mahaian edukitzen dudana dena lurrera jausten zait. Arrazoi horregatik, gaur ingeleseko klasean, nire arkatz berria ere lurrera erori zait. Arkatza jaso dudanean, arkatzaren punta apur bat zorrotzagoa zegoela nabaritu dut.

–Ze arraroa... –pentsatu dut.

Kuriositateagatik, berriro bota dut arkatza lurrera, eta bai, zorrotzagoa jarri da! Klase ordu osoan arkatzari begira egon naiz. Nola izan daiteke posible arkatz bat gero eta zorrotzago egotea lurrera erortzen zaizun bakoitzean?

Ahaztu zait esatea bi eskuekin ahal dudala idatzi. Gaztelaniako klasean, esku ez-kerra erabili dut idazteko eta harrituta gelditu naiz. Arkatzak urdinez idazten zuen! Begiak asko zabaldu ditut, baina bai, urdinez idazten zuen. Eskuineko eskuarekin jarraitu dut idazten, eta oraingoan arkatx kolorearekin nengoen idazten!

Gaztelaniako andereñoa hurbildu zait.

–¡A ver, Álex! ¡Organízate un poco! –esan dit irakasleak, nik begiak zabal-zabalik nituen bitartean.

Bi egun beranduago matematikako klasean, arkatza zorroztu behar nuen, eta aurreko egunean gertatu zitzaidanarekin oroitu naiz. Arkatza lurrera botatzen hasi naiz, eta zazpigarren aldiz bota dudanean, matematikako irakaslea haserretu egin da.

–Alex, ekarri arkatx hori oraintxe bertan! Konfiskatuta! Hurrengoan ez egin hainbeste zarata! –esan dit irakasleak.

–Ai ama! Zer egingo dut nik nire arkatx magikorik gabe! Zerbait pentsatu behar dut. Barkamena eskatuko diot irakasleari! –pentsatu dut neure baitan.

Matematikako klasea bukatu denean, nire irakaslearengana hurbildu naiz.

–Barkatu, andereño. Ez dut arkatza lurrera botako berriro. Bueltatuko didazu nire arkatx magiko... nire arkatx arrun-arrunta, mesedez? –esan diot.

Ai ama! Nire andereñoari esan diot nire arkatza magikoa dela!

–Ze arkatx magiko, Alex?

–Ufff... ez nizun esan nahi, baina arkatx magiko bat dut. Bai, benetan! Superbotereak ditu nire arkatzak!

–Zer iruditzen zaizu gaur arratsaldeko 17:00etan, irakasle-gelan elkartzen bagara? Eta horrela erakutsiko didazu zein superbotere dituen zure arkatzak. Ados?

–Bai, ados.

Arratsaldeko bostetan, irakasle-gelara abiatu naiz. Iritsi naizenean, nire matematikako irakaslea, Oihana, han zegoen. Irakasle-gela ia hutsik: nire irakaslea, nire arkatza eta ni baino ez geunden bertan.

–Kaixo, Alex.

–Kaixo.

–Tira ba, erakutsiko dizkidazu zure arkatzaren superbotereak?

Nire arkatzarengana hurbildu naiz eta edozer gauza marrazten hasi naiz, eskuineko eskuarekin.

–Ikusten duzu gris kolorearekin idazten duela, ezta? –beste eskuarekin marrazten hasi naiz. Ba orain urdinez idazten du.

Nire irakaslearen begiek teniseko pilotak dirudite; oso harrituta dago.

–Nola egin duzu hori?

–Esan dizut ba, nire arkatzak superbotereak dituela! Beste superbotere bat ere badu. Ikusten duzu ez dagoela oso zorrotza, ezta? Beno ba, orain lurrera botako dut.

Nire arkatza lurrera bota dut.

–Eta orain zorrotuagoa dago!

Nire irakaslearen begiak gehiago zabaldu dira.

–Orduan, itzuliko didazu nire arkatza?

Nire irakasleak ez du erantzuten, oso harrituta dago.

–Ez, ez dizut itzuliko arkatza, gehiago egin behar ditut.

–Nola?

–Txiki-txikitatik nahi izan dut arkatzen lantegi bat izan. Arkatz hau nola egiten den jakin behar dut. Non lortu duzu arkatz hau, Alex?

–Markok oparitu zidan nire urtebetetzean.

–Markorekin hitz egin behar dugu. Baina arazo bat dugu: Zer egingo dugu irakasleek arkatz hauek ez konfiskatzeko ikasleak arkatzak zorrozten daudenean?

–Ez dakit...

–Badakit! Arkatzak material bigunago batekin ditzakegu, eta horrela ez dute zaratarik aterako.

–Hori da!

–Bihar goizean Markorekin hitz egingo dut eta galdetuko diot nola egiten diren arkatzak eta ea utziko didan bere arkatzak saltzen. Alex, bihartik aurrera arratsaldetan soilik emango ditut klaseak.

–O..ongi d..da. Baina oparituko didazu nik nahi ditudan arkatz guztiak, ezta?

–Noski, eta Markori ere bai.

Hurrengo egunean, ikastolara iritsi naiz, eta hau topatu dut: nire ikaskideak motxilak eta txamarrak eransten, Marko eta nire irakaslea elkarrekin hizketan eta irakasle berri bat. Nire oraingo irakaslea baino askoz ere gazteagoa da, eta ilehoria da. Nire irakaslea konturatu da gelara sartu naizela.

–Kaixo, Alex. Hitz egin dut Markorekin eta baietz esan dit. Ai, Alex! Zein pozik nagoen!

–Egun on denoi! Eseri denok, mesedez. Berri oso garrantzitsu bat emango dizuet eta. Ikusten duzue, irakasle berri bat dago gelan. Molly deitzen da. Londresekoa da, baina euskaraz hitz egiten ikasi du eta oso ondo hitz egiten du.

–Gauza da beste lan bat eduki behar dudala gaurtik aurrera, baina arratsaldetan ni etorriko naiz egunero bezala; Mollyrekin bakarrik goizetan egongo zarete –jarraitu zuen azaltzen irakasleak.

Nire ikaskideak harrituta daude.

–Beno, arratsaldera arte, agur!

–Agur! –esan genuen denok.

Egoera hau, nahiko arraroa da, baina ohituko naiz. Azkenean, Molly oso jatorra da. Eta hoberena zera da: beti edukiko ditudala nahi beste arkatz magiko.





*Enara Urrutia  
eta Oihana Retegi  
"Familia" taldea  
Saria*

*Ipuina*

*Balantzia  
20*

*Intxaurrondoko etxetxo*



## *Intxaurrendoko etxetxoa*

Bazen behin Markel izeneko bost urteko mutikotxo bat. Markel baserrian bizi da bere familiarekin eta Laika txakurrarekin. Laika txakurra Markeli oparitu zioten bost urte bete zituenean. Arratoi-txakur gazte polit eta eme bat da. Markelek eta Laikak asko jolasten dute baserriko zelaian.

Markelen aita baserri ondoko intxaurrendoko etxetxo bat egiten ari da Markelek han jolasteko. Markel oso pozik dago, ikastolako lagunak baserrira gonbidatzeko gogoarekin. Aitari gutxi falta zaio etxetxoa bukatzeko. Markelek lagundu dio barruko paretak zuriz margotzen. Paretak zuriegi gelditu direla eta, Markelek Laikaren marrazki bat egin du paretaren batean. Oso polita gelditu zaio. Laikak ere zaunka egin du bere marrazkia ikustean eta buztana mugitu du alde batetik bestera pozik.

Etxetxoa bukatuta dagoenez, amak Markeli larunbat arratsaldean lau lagun etxetxora meriendatzera gonbidatzeko esan dio. Markelek argi du zeintzuk gonbidatu. Andoni ezin du gonbidatu txakurrei alergia dielako. Orduan, Unai, Jon, Maren eta Maddi gonbidatuko ditu. Markel urduri dago egunaren zain.

Iritsi da azkenean larunbata. Goiza txokolatzeko pastela prestatzen pasa du Markelek. Marrubiak ere erosi dituzte lagunekin jateko. Koloretako globoekin apaindu du zuhaitzeko etxetxoa. Dena prest dauka Markelek lagunak etortzen direnerako. Bostetarako lagun guztiak baserrian dira. Lagunak ere urduri samar daude. Denek nahi dute etxetxora igo eta etxetxoan jolastu. Etxetxora igotzean denek barre egin dute Laikaren marrazkia ikustean.

Lehenengo Markelek prestatutako merienda goxoa jan dute. Marrubi guztiak jan dituzte. Txokolatezko pastelak ere sekulako arrakasta izan du, eta denek bukatu dute txokolatezko bibotearekin. Hain barregarri daudenez denak, argazki bat atera dute eguna gogoratzeko. Argazkia denek Laika-Laika-Laika oihukatuz atera dute. Ondoren, piratak zirela pentsatuz altxorraren bila jolastu dute. Korrika zebilela, Unaik eskumako oina behiaren kaka artean sartu du. Unai garrasika hasi da, kaka-kaka-kaka esanez. Lagunek ezin izan diote barrearari eutsi. Unaik ere azkenean barrezka amaitu du. Marke-len amak garbitu dio oinetakoa eta garbi-garbi gelditu zaio. Jolasean jarraitu dute, Laika atzetik zutela.

Iluntzean, etxeratzeko ordua heldu denean, Markelek bere intxaurrendoko intxaurrak eman dizkie lagunei etxera joan aurretik. Izugarri ondo pasa dute arratsaldea denek elkarrekin. Markelek, lagunak agurtzean, hurrengoan berriz meriendatxo bat egingo dutela intxaurrendoko etxetxoan esan die, eta txokolatezko pastela ez dela faltako!



*Ipuina*

*Jose Antolin Pescador,  
Oier Pescador,  
Ane Pescador eta  
Marian Cid  
"Familia" taldea  
Saria*

*Balantzia  
20*

*Ujue usotxo*





## *Ujue usotxoa*

Nire bizitza buruz behera aldatu zen duela lau aste. Nire bizimodua oso sinplea zen; egunero janari bila joan, habia prestatu, lo egin eta gizakiek egiten zutena begi zorrotzarekin begiratzen nuen. Nire askatasuna oso murriztuta zegoen baina, egia esan, oso bizimodu erraza eta gustukoa nuen. Potolo-potolo nengoen, eta ia esfortzurik gabe elikatu eta nire ingurukoak elikatzen nituen.

Beno, badira lau aste gizaki madarikatuak herritik desagertu direla eta nire bizimoduak porrot egin du.

Zer demontre gertatu da? Lurra garbi-garbi dago, baina janaria desagertu da eta kilometro asko egin behar ditut janaria aurkitzeko. Orain, oso libre sentitzen naiz baina, paradoxikoki, egunero goseak nago.



Orduan, filosofatzen hasi naiz eta niretzat onena zer ote den da nire zalantzarik handiena. Lehen asko jaten nuen eta potolo nengoen; eta orain, aldiz, argal-argal nago janaria lortzeko esfortzu handia egin behar dudalako. Izan ala ez izan, hemen dago erantzuna baina, zer da hau? Arghhhhh!

Bai... Ujue pentsatzen ari zen bitartean, arrano beltz batek bere gaurko janaria ikusi zuen eta, tximista bezain azkar, Ujue harrapatu zuen. Ujueri istorioa amaitu zitzaion.

IRAKASPENA: BIZI ORAINALDIAN eta momentu gogor hauetan ez ahaztu usoak.







Miren Irizar eta  
Maddi Arzamendi  
"Familia" taldea  
Saria

*Ipuina*

*Balantzia*  
20

*Nahi duzuna, Nora*



## *Nahi duzuna, Nora*

Norari bere urtebetetzean koaderno bat oparitu zioten. Hasieran, marrazkiak egiteko erabiltzen zuen bakarrik.

–Nora, zergatik ez duzu idazten koadernoan? Marrazkiak besterik ez dituzu egiten... –esan zion irakurzale amorratua zen bere aitak.

Eta horrela hasi zen idazten koaderno berrian: “Hamarrekoa aterako dut biharko matematikako azterketan”. Gero, lotara joan zen.

Biharamunean, emaitza emateko momentua iritsi zen. Oso azterketa zaila jarri zuen irakasleak: zatiketak!! Uggh!! Norak, oso urduri, begiak itxi zituen eta... WTF HAMARREKOA MATEMATIKAN!!!

–Nora!! –ama irribarretsu sartu zen gelara–. Matematikan lan handia egin duzu eta fruituak eman ditu lan horrek. Ospatzeko asmoarekin, Ice-Cream dendatik pasatu naiz izozkia eroatera eta txan-txan... zure gogokoena, esne-gain izozkia!

Nora barrutik izozkia bezain hotz geratu zen.

–Eskerrik asko! –erantzun zion disimuluarekin. Ama logelatik atera zen eta atea itxi zuen.

Riiiiinnngg!!! Goizean, iratzargailuak jo bezain laster korrika eta presaka jantzi zen ikastolara joateko. Lagunei kontatu nahi zien berak koadernoan idazten zuena erreallitate bihurtzen zela.

Eskolako txirrinak jo zuenean Jon, Sare, Irati, June eta Unaxengana hurbildu zen.

–Epa kuadrilla!

Denak hurbildu ziren eta ahotsa pittin bat jaitsiz esan zien:

– Gauza bat kontatu nahi dizuet... Koaderno bat daukat eta bertan idazten dudan guzti-guztia benetan gertatzen da.

Jonek aurpegi arraroa jarri zuen.

–Frogatu dezakezu?

–Zuk zer uste duzu? –erantzun zuen Norak aurpegi txarra jarritz.

Norak koaderno motxilatik atera, 53. orrialdean zabaldu eta idazten hasi zen: 100.000.000 euro nahi ditut.

Bat-batean pisu handia nabaritu zuen motxilan, ireki eta erakutsi egin zien. Diru pila zuen barruan, txanpon asko eta billete mordoa.

–Aaaaaapaaaa hi!!! –esan zuten lagunek eta guztiak batera galderak egiten hasi ziren.

–Nola egin duzu hori? –Unaxek.

–Non erosi duzu koaderno? –Iratik.

–Nik probatu nahi dut!! –Jonek.

Sare mutu geratu zen.

Kartoi zati batean mezu bat idatzita zeukan eskale batekin egunero egiten zuten topo. Mezuaren arabera, sei seme-alabaren aita zen eta langabezia zegoen. Norak pentsatu zuen ongi legokeela diru hori eta gehiago beharra zutenei ematea.

Bat-batean, ideia zurrunbiloa hasi zitzaion buruan; esaterako, aldaketa klimatikoa geldiarazteko boterea zeukala koadernoari esker. Eta barita magikoa izango balu bezala, aldaketa klimatikoa gelditzea lortu zuen. Teleberrian ez zuten besterik aipatzen. Hobekuntza guzti horiek egin eta gero, begiak itxi eta konturatu zen urte guzti haie-tan gauza asko nahi izan zituela, eta agian iritsi zela kapritxoren bat eskatzeko ordua. Pentsatu eta koadernoan idatzi zuen... Dragoi bat nahi dut!

Norak zerura begiratu eta puntu beltz bat ikusi zuen, handitzen zihoan eta erraldoia egin zenean, haren sorbaldara igo zen, dragoi bat zelako! Crossing izena jarri zion, haren gainean mundua alderik alde gurutzatu zezakeelako. Pentsatu eta egin. Dragoi gainean jarri eta Japonia, London, Mongolia, Zeelanda Berria eta New York bisitatu zituen.

–IUPIIIII!!!! –garrasi egin zuen eta dragoia beherantz joan zenean tximeletak senti-titu zituen sabelean.

Bat-batean, Crossing dragoia desagertu egin zen, eztanda egiten duen globo baten antzera, Norak eskatutako gainontzeko gauza guztiekin batera.

–AAAAAAAHHH! LAGUNTZAAAAA!!!! –Nora erortzen ari zen–. GRABITATE MADARIKATUAAAAA!!!

*“Irakurle maiteok, azalpen batzuk eman behar dizkizuet, orain egingo dudana arraroa irudituko zaizue bestela. Ni ipuin-kontalaria naiz, Eparre da nire izena (ez dut nire burua lehenago aurkeztu ipuin-kontalariak ez dugulako normalean inolako protagonismorik izaten istorioan). Ipuinaren puntu honetara iritsita, badakit Norak laguntza behar duela (orokarilea bainaiz, hau da, istorioko zehaztasunak eta pertsonaiek pentsatzen eta sentitzen dutena dakizkit). Presa daukat eta ezin dut azalpen handirik eman, baina ez zaituztet bakarrik utziko. Nire lagunari esango diot ordezeko ipuin-kontalaria izateko. Konpainia onean utziko zaituztet. Orain misio garrantzitsu bat dut... Nora salbatzea, hain zuzen ere! AGUR irakurle maiteok!”*

*“Kaixo, ordezeko ipuin-kontalaria naiz. Dakizuen moduan, Eparre Nora laguntzera joan da eta nik kontatuko dizuet gertatu zen guztia (bai, istoriora sartzeak espazio-denbora aldatzea dakar eta Eparre orain definitu gabeko espazio-denbora batean dagoenez, istorio gehienak kontatzen diren bezala iraganean kontatuko dut).”*

Nora erortzean zegoela, Eparre azpian jarri eta PlopoBlob asmakizuna (edozein egoera konpontzen duen kalitatezko makina) martxan jarri eta lortu zuen Nora makinaren gainera erortzea; baina Eparre igo orduko konturatu zen Nora ez zegoela han.

–Persefone lurrazpiko erreginak Nora bahitu du! Beran mendian daude biak! –esan zuen ozenki.

Eparre ondotik pasa zitzaion haize-bolada baten gainera igo eta, surf eginez, zuzenean joan zen Beran mendira

Beran mendian, Persefone erregina eta Nora aurrez aurre zeuden, begirada zorrotza aurpegian zutela, borrokan hastekoak diren bi samurai bezala.

–Nora! Non duzu koaderno hori? –esan zuen Persefonek, pazientziarik gabe.

–Non izango dut ba? Zeuk esan, lapurra! –erantzun zion Norak.

*Flashbacka egin behar dugu hemen.*

Noraren aita alde zaharreko paper-denda txiki batean sartzen ikusten dugu. Laster alabaren urtebetetzea da eta koaderno polit bat oparitu nahi dio. Dendara sartu eta begirada apal batean jartzen du. Japonian egindako koaderno batzuk daude bertan. Gerturatu eta koaderno berdea eskuetan hartu ahala, sumatzen ari da azalak efektu arraroa egiten duela, zimurrak ditu eta bigarren eskukoa dirudi. Koaderno ireki eta berri baten itxura hartzen dio; horrez gain, krema koloreko orrialde lodiak ditu eta aita hainbeste erakartzen duen bainila usaia.

–Aizu, barkatu. Koaderno honek zenbat balio du? –galdetzen dio dendariari, emeki, orrialdeak eskuekin laztantzen dituen bitartean.

–Koaderno honek duen balioa ezin du inork ordaindu eta, hori gutxi balitz, berak aukeratzeko duen jabea; are gehiago, jabea koadernoak duen eskakizun mailan ez badago, beste norbaiten eskuetara ihes egingo du. Dohainik emango dizut –eta dendari misterioitsuak koaderno biltzen du izarrez betetako opari-paperarekin.

*Flashback-amaiera.*

Beran mendian, Nora eta Persefone erregina liskar sakonean murgilduta zeuden. Horrelako isilune batean, hots bat entzun zen; garrasiak eta algarak urrutira. Persefone doinu hura ateratzen zen lekuraino azkar joan zen; bazirudien bere hankek ez zutela lurra ukitzen baina, agian, soineko luzearen efektua zen bakarrik. Hara non, Noraren lagunak eta ipuin-kontalaria azaldu ziren: Eparre, Unax, Irati, Sare, June eta Jon. Hauek panorama aztertu eta nahiko txarra zela antzeman zuten. Persefonek tratatu bat egitea proposatu zien:

–Hiru aukera dituzue txiste bat kontatzeko. Barre egiten badut, Nora salbatu egingo da. Ez badut barrerik egiten, zuen lagun lapurtxo hori Beran sumendiak botako duen labaren azpian harri bilakatuko da betiko...

Sare hitz gutxiko neska zen, baina momentuak eskatzen zuenean oso ausarta. Harelere, totelka hasi zen txistea kontatzen:

–Aaaa..aama batek esaten dio besteari: Nire semeak lanean aho zabalik uzten ditu bezeroak.

–Zein da ba zure semearen lanbidea?

–Dentista!

Persefonek zerura begiratu eta asperen eginez ironiaz beteriko hitzak jaurti zituen:

–Gutxi maite duzue laguna horrelako txiste petral bat kontatzeko. Maila horrekin jai daukazue! Begira, arauak aldatu ditut eta ez dizuet aukera gehiago emango. Denbora galtzea besterik ez da izango eta!

Urruti eztanda bat entzun zen... BRRRUUMM!!! Beran mendiak, sumendi bilakatura, kea zeriola, dinosauro beldurgarri baten itzala zirudien...

### **Bat-batean, iluntasuna...**



Eparre nazkatuta dago eta istoriotik atera da. Ezagutzen dituzu matrioskak edo errusiar panpinak? Bata bestearen barruan sartzen diren kolorez betetako kaxatxo horiek? Nora, Persefone lurrazpiko erregina, lagunak, Noraren aita, ama eta dendaria matrioska txikienean daudela imajinatu ezazu. Eparrek, istorioak izango duen amaiera tristea ikusi duenean, atera egin da kanpora, matrioska txikia bere baitan hartzen duen panpina handiagoaren barrura, narratzaile edo ipuin-kontalariarena den panpinara, badakielako istorioaren bukaera tristea zein den eta min ematen diolako bertan egoteak. Hala ere, kontatzen duenean esperantza dauka ipuinaren norabidea aldatzeko boterea emango diola idazleak... Baina jai dauka!

Ipuin-kontalariaren panpina bere baitan hartzen duen hirugarren matrioska handiago bat dago, eta bertan ni neu naiz protagonista. Kaixo! Nyx da nire izena, ipuin hau asmatu duen neskaila naiz. Koadernoan idazten dudan guztia errealitate bilakatzen da eta ez dakizue nola gustatzen zaidan pertsonaiak, egoera korapilatsuak, drama eta

komedia sortzea. Jainko txiki bat naizela imajinatzen dut! Baina ez jainko onbera eta eskuzabala, bihurri samarra baizik. Badakit... Egoera larrian utzi ditut nire laguntxoak. Baina berandu da, gosetuta eta nekatuta nago (mundu eta pertsonaien sorkuntza oso nekagarria da) eta super botere honek itxoin egin beharko du bihar arte, afari goxoa jan eta almodarekin kontsulta egin nahi dut eta. Bihar biharkoak!

Irakurle maitea, etxean ongi begiratuz gero, krema koloreko orrialdeak dituen koaderno aurkituko duzu txokoren batean ezkutuan. Probatu dezakezu eta amaiera bat eman istorioari (Norak eskertuko luke). Eta nork daki! Agian zu zeu zara koadernoari dagokion benetako jabea eta ametsak errealitate bilakatuko dituen. Edo... Begiratu gora, albora... Begiratu ezazu ongi itzalen atzealdean... Ikusten duzu matrioskaren bat?





*Ander Alcaide eta  
Maddi Martin  
Laugarren taldea  
1. saria*

*Ipuina*

*Balantzia  
20*

*Gerratik ihesean*



## *Gerratik ihesean*

–Ama, begiratu zer aurkitu dudan, “Aamaal-en egunkaria” jartzen du. Gogoratzene al duzu zenbat ordu pasatzen nituen liburu hau eskuartean nuela? Agian, berriz idazten hasi beharko naiz –esan zuen Aamaalek.

–Ikusi duzu? Orain dela lau urte idatzi nuen azkenekoz. Hau nire letra zen. Ez dut inoiz letra zatarragorik ikusi. Lotsa eta dena ematen du! –jarraitu zuen Aamaalek harrituta.

–Ez esan hori! Gogoratu hamabi urte zenituela. Urteekin idazteko modua aldatuz joaten da. Txikitan inork ez du letra polita izaten. Nahi baduzu beste koaderno bat ekarriko dizut, hau dagoeneko oso zaharkituta dago eta. Polita zen, baina... Ikusi duzu nola zaindu zenuen? Horrela zaintzen baduzu ez dizut beste koadernotxo bat erosiko –agindu zion amak.

–Ez, ez! Nik ez dut beste koaderno bat nahi, nik honekin jarraitu nahi dut. Hautsa kentzean ikusiko duzu nola geratuko den –garbi utzi zion amari.

–Nahi duzuna, baina gaur ezezkoa bada zure erantzuna, ez etorri niregana beste koaderno baten eske –erantzun zion amak.

–Lasai egon! Ez dizut ezer erosteko eskatuko –esan zuen Aamaalek.

2011-02-28 “Astelehena”

*Gaur aspaldiko partez zabaldu dut liburu zahar hau. Ez nuen idazteko asmo handirik, baina, egia esan, koaderno hau zabaltzean txikitan izandako sentimendu berezi batzuk sentitu ditut nire baitan.*

*Eskerrak amari eta bere burugogokeriari, bestela ez zintudan aurkituko, ganbarako kaxa batzuen atzean botata zeunden eta.*

*Ez dut uste denbora asko edukiko dudanik zuregana berriz jotzeko, gure auzoterian egiteko asko daude...*

*Besterik gabe, Aamaal.*

–Begira, ama. Gogoratzen aurrekoan aurkitutako liburuxka hura? Gaur hasi naiz idazten eta hemendik aurrera egunero idazten saiatuko naiz –esan zion amari.

–Aamaal, baina badakizu beste betebeharrak batzuk dituzula! Ezin zara egunero egunero hori idazten ibili! Eskolara joan, etxean lagundu, anai-arreba txikiak zaindu eta beste hainbat gauza egin behar dituzu.

–Beno, egia da! Ez dut uste egunero idazteko aukerarik izango dudanik, baina egunero ez bada asteen behin izango da, ziur nago.

–Nahi duzuna, baina ez egon egunero zure gelan sartuta liburu horrekin! Arren eskatzen dizut –erantzun zion amak.

2011-03-05 “Larunbata”

*Azken egunetan gurasoak erabat aldatuta ikusi ditut. Etxean ez dut aldizkaririk ikusi baina, nire lagun batek eskolara ekarri duen aldizkariak dioenez, ondoko herrietako batzuetan izandako manifestazioaz geroztik, gobernua neurriak ezartzea pentsatzen ari da.*

*Besterik gabe, Aamaal.*

2011-03-08 “Asteartea”

*الحرب على وشك الانفجار* (Gerra hasteko zorian). Hori izan da gaurko egunkariaren izenburua. Gurasoak hau dena ezkutatzen saiatu dira, nire eta nire anai-arreben laisatasunarengatik.

*Baina, egia esan, ez gaude batere lasai gure inguruan gertatzen ari denarekin. Urduri gaude, inork ez daki zer gertatuko den.*

*Besterik gabe, Aamaal.*

2011-03-11 "Ostirala"

Urduritasun-giroa nabarmentzen da herrian eta dagoeneko jende gutxi ikusten da. Ahizpa txikiak dagoeneko ez ditu lagunak eskolan; izan ere, gelakideen gurasoek herri-  
tik alde egin dute. Nork daki nora abiatu diren eta non bukatuko duten.

Besterik gabe, Aamaal.

2011-03-15 "Asteartea"

‘بداية النهاية’ (Bukaeraren hasiera). Dirudienez, ez dago atzerabueltarik. Hemendik aurrera  
nork daki zer gertatuko zaigun, nork daki non bukatuko dugun eta nola bukatu dezakegun.

Kalean zarata handia dago, baina giro iluna dago bertan. Herritik ihes egin duten  
pertsonek Europara sartzen saiatuko dira Turkia aldetik. Beste batzuk, aldiz, hegoalde-  
rantz jo dute, manifestazioetan parte hartzeko helburuarekin. Etxean, aldiz, urdurita-  
suna nabarmena da eta helduak zer egin pentsatzen hasi dira; txikiak, berriz, kalean jo-  
lasten ari dira, ez dakite ezer honi buruz. Irratian esan dutenez, gobernuak ez du  
ondorio larrietara iritsi nahi, baina babesteko beharrezkoa bada iritsiko direla esan dute.

Besterik gabe, Aamaal.

2011-03-18 "Ostirala"

Beste egun ilun bat pasatu da nire aurretik. Manifestazioen ondorioz, lagun baten  
aitaz gain, beste sei hil dituzte bertako guardiek eta 18 pertsona eraman behar izan di-  
tuzte mediku-etxeetara. Hori dena atzo gertatu zen hegoaldeko Deraa herrian.

Baina, momentuz ez da ezer larria pasatzen ari nire herrian. Iskanbilaren bat edo  
beste bizi izan dugu, baina ez da zauritu larririk egon; hala ere, zer edo zer gertatuko  
balitz dena prest dugu bertatik alde egiteko.

Besterik gabe, Aamaal.

2011-03-19 "Larunbata"

Gaur goizean etxetik alde egiteko erabakia hartu dugu; izan ere, jaikitzerakoan Siriako  
gobernuaren soldadu batzuk genituen herrian zehar. Etxeko txikiek ez dakite zer gertatzen  
ari den eta gurasoak kezka-tonuaz hitz egiten egon dira egun osoan zehar. Ez dut uste den-  
bora asko edukiko dudarik zuregana jotzeko; izan ere, bizilekuz aldatzeak lan asko dakar.

Besterik gabe, Aamaal.

2011-04-16 "Larunbata"

Iritsi gara gure etxe berrira. Ez da lehen genuen etxea bezain polita eta handia, baina oraingoan horrek ez du axola. Iparralderantz bidaiaitzea erabaki genuen, horrela egoera hobe batean bizi gaitzkeelako guztiok. Uste dut ez nizula kontatu baina ez gara bakarririk etorri; aitarene lagun baten familiarekin batera mugitu gara bertara. Nire adineko mutil bat dago gurekin bizitzen, eta ez dakizu nolakoa den! Jalal du izena eta oso jatorra da denekin, eta langilea da gainera! Irratiak ez du ondo funtzionatzeko eta horren ondorioz azkenaldian ez dugu herrialdearen beste aldetik berririk izan...

Besterik gabe, Aamaal.

2011-04-29 "Osteguna"

Jalalek etxetik alde egin behar duela esan didate. Dagoeneko lagun minak ginen eta izugarritzeko damua sentitzen dut nire baitan. Esan didatenez, Siriako armadak laguntza behar du, eta inguruko gizon gazteei laguntzeko agindu die. Beraz, ez dakit berriz hura ikusteko aukerarik izango dudana... Agian bai, agian ez...

Besterik gabe, Aamaal.

2011-05-13 "Ostirala"

Azken egunetan oso egoera larrian bizi gara. Ez du euririk egin, amaren baratzeak barazkiak lehortu egin dira, herriko iturrian ez dago denontzako adina ur. Herriko neska gazte guztiok lagundu behar dugu herrian. Batzuek bertako umeak zaintzen dituzte eta beste batzuk, berriz, ur bila joaten gara egunero; gutxi gorabehera hiru kilometro egiten ditugu oinez ondoko herriko ibairaino. Bertan ere nabarmena da euri falta. Gurasoak, bestetik, etorri berri direnei laguntzen ari dira; beste batzuek, aldiz, dirua lortzeko bideak bilatzen dituzte.

Besterik gabe, Aamaal.

2011-05-28 "Larunbata"

Azkenean lortu dugu aldzikariak herrira iristea. Esaten dutenez, hegoaldean dagoen egoera oso larria da eta gatazka asko gertatzen ari dira. Zoritxarrez ez dugu nire lagun minaren berririk. Etxean kezkatuta gaude. Gazteok, aldiz, harremanak egiten hasi gara. Egia esan, herri honetako biztanle gehienak gure antzekoak dira eta arazo berarengatik etorri ziren.

*Bertan dauden gazteak, ordea, ez dira Jalal bezalakoak; denak oso berekoiak dira.*

*Besterik gabe, Aamaal.*

2011-06-23 "Osteguna"

*Dagoeneko udan sartu gara. Herrikook beldurrez gainezka gaude, lehorteak sufritzeko aukerak beti daudelako inguru hauetan eta udan are gehiago. Ura gordetzen aritu gara azken asteetan, arazorik ez izateko asmoz. Herriko agurea gaixotu zaigu eta dagoen egoeran ezinezkoa da bere osasunak hobera egitea. Beraz, gaur egin den hitzorduarekin jakingo dugu nor joango den harentzako botikak erostera. Segur aski, bi pertsona joango dira inguruko hirira.*

*Besterik gabe, Aamaal.*

2011-06-25 "Larunbata"

*Pentsatzen nuen bezala, nire aita eta beste gizon bat joango dira botika bila. Inork ez daki zenbat denbora beharko duten eta, behar bada, herrira iristean beranduegi izango da. Nork daki...*

*Gaur gauean beldurra pasa dugu herrikook. Hegazkin asko entzuten ziren, baina ez zen ezer gertatzen. Hala ere, ez ziren Sirian ditugunak bezalakoak, beste herrialde batetakoak izango ziren behar bada...*

*Besterik gabe, Aamaal.*

2011-07-25 "Astelehena"

*Ez dugu aitararen eta beste gizonaren berririk. Gainera, beranduegi da. Gizonaren osasun egoerak ez du atzerabuelarik. Herriko kemena asko jaitsi da egun batetik bestera eta, horrez gain, uztailako lehorteak ia barazkirik gabe utzi gaitu. Herrialde osoan zehar egoera okerrera joan da. Damasko hirian etenaldi gabeko borroka daude eta egoera jasan ezina da bertan.*

*Besterik gabe, Aamaal.*

.....

2012-01-11 "Asteazkena"

*Azken hilabeteetan ez dut izan aukerarik hemen idazteko; izan ere, agurearen he-*

riotzaren ondorioz dena okertu zen herrian eta etxebizitzaz aldatu behar izan genuen. Herrialde osoan zehar egoera ez da onena eta jendea, egoera horretaz aprobetxatzeko nahiarekin, lapurtzen hasi da. Horren ondorioz, gau eta egun geratu behar gara pare bat pertsona etxebizitza zaintzen. Behin baino gehiagotan hurbildu dira lapurtzera, baina zenbat pertsona geunden ikustean zailtasunik gabe botatzen genituen. Gurasoek lanean pasatzen dute gaua eta eguna dirua lortzeko. Ume txikiak, aldiz, kalean daude beti; ez dakite zein egoeratan gauden baina, hala ere, ez dira bizi lehen bezain pozik, eta normala dela konturatzen naiz, euren lagunak eta bizilekua utzi behar izan zituzten “arrazoirik gabe” (beren ustetan).

Besterik gabe Aamaal.

2012-07-18 “Asteazkena”

Denbora asko pasa da zurekin hitz egiteko aukera izan nuenetik eta, egia esanda, ez nekien aukera hau izango ote nuen. Azkenaldian gertaera asko bizi izan ditugu eta gaurko eguna aprobetxatu nahi dut gertaera horiek azaltzeko.

Lehendabizi, otsaileko eguraldia azken urteetako txarrena izan zen, eta horren ondorioz, baratzeko janari asko galdu genuen. Gainera, herrikoren bat gure etxera sartzen saiatu da azken aldi honetan; jana falta zitzaigula konturatu ginen. Herriko denok aste txarrak pasa ditugu klima kaxkar horren erruz, eta, beraz, ez genuen iskanbilarik sortu nahi gure etxera janaria lapurtzera norbait sartu delako. Irratian esan dutenez, udan zehar antzerako egoera bat biziko da herrialde osoan zehar, baina dena prest dugu horretarako. Hirigunearen kanpoalde txabolaz bete dutela ere esan zuten. Eta ezetz asmatu! Jalalen berriak ere izan genituen! Eskerrak! Etxean urduritasuna nabari zen albistea entzuterakoan, baina ondo dago, iparraldean kokatuta. Bertan borrokak ez dira hain bortitzak eta dagoen tokian salbu dagoela ziurtatu digu. Denak horrela jarraitzen badu laster gobernuak erabaki larriak hartu beharko ditu, edo beste herritarren eskaerak edo neurri altuagoak jarri... Espero dezagun azkenengo honetara ez iristea!

Besterik gabe Aamaal

2012-11-04 “Igandea”

–Aamaal, esnatu! Azkar! Eta hartu zure gauzak, hemendik irten behar dugu! –dio amak.



–Ama, zer gertatzen da?

–Geroago azalduko dizut! Azkar!

–Baina, ama! Erantzun, mesedez! Zer ari da gertatzen?

–Militarrak hona datoz! Hori gertatzen da! Eta ikusten dituzten pertsona guztiak harrapatuko dituzte, berdin du zein izan.

–Ados, baina non dago aita?

–Lehenago irten da, etxetik kanpo dena prestatzen ari da.

–Mugi gaitezen! Dena prest dut.

Gure Aamaalek Europara bidaiatzea aukeratu zuen, nahiz eta hori lortzea zaila izan. Gure neskak ez zuen dena eraman, nahiz eta berak hori pentsatu. Sentimenduz betetako egunerokoa utzi zuen. Hala ere, badakigu bere gertaerak kontatzeko bideak aurkituko dituela.





*Maite Errasti  
Laugarren taldea  
2. saria*

*Ipuina*

*Balantzia  
20*

*Bihotzik gabeko panpina*



## *Bihotzik gabeko panpina*

Negu hotza zen. Mundu guztia etxean zegoen tximiniaren berotan, Elur izan ezik. Elur bakarrik zegoen elur-panpina zen, bihotz onekoa, baina bihotzik ez zuena.

Panpina sortu zuten umeek ez zioten bihotzik ipini eta, sortu ondoren, negu hotzean bakarrik utzi zuten Elur. Orduak eta egunak pasatu ziren eta ume haiek ez ziren berriro panpinarengana hurbildu.

Elurri, ume guztiak alaitzeko eta pozteko, benetako bihotz bat behar zuela iruditzen zitzaion. Bihotzik gabe, ordea, ez zuela indar nahikorik iruditzen zitzaion.

Panpinak hainbat galdera egiten zizkion bere buruari:

–Zergatik ez dut nik bihotzik?

–Zergatik ez didate bihotzik ipini?

–Nola lortuko dut nik bihotz bat?

Egunak joan eta egunak etorri, halako batean haizeak, Elur honi lagundu nahian, jolasten ari zen neskatila txiki bati txanoa kendu eta elur-panpinaren oinetaraino eramane zuen. Umea makurtu egin zen bere txanoa hartzeko eta, altxatzean, triste aurpegia zuen elurrezko panpina erraldoia ikusi zuen bere aurrean, eta honela galdetu zion:

–Kaixo, panpinatxo! Haizeak nire txanoa eramane dit eta bila etorri naiz. Ez zintudan molestatu nahi...

–Ez, lasai! Gelditu zaitez nirekin nahi baduzu! Konpainia pixka bat izatea gustatuko litzaidake –esan zuen orduan Elurrek.

–Beno, denbora daukat. Nire txanoa ipiniko dizut, hoztuta ikusten zaitut eta. Ea horrela zure aurpegi hori alaitzen den!

Han ibili ziren orduak eta orduak jolasean eta elkarrekin hitz egiten, eta pixkanaka-pixkanaka, Elurren aurpegia aldatuz eta poztuz zihoala iruditu zitzaion neskatilari. Baina, bat-batean, neskatilak galdera hau egin zion panpinari:

–Zergatik zeunden hain triste eta goibel ni heldu naizenean? Suposatzen dut hain txano polita edukitzeak poztu egin zaituela, baina lehenengoz ikusi zaitudanean oso alai ez zeundela argi dago!

Elur konturatu zen galdera horren erantzuna nahiko xelebrea zela, eta neskatilaren galderari ez erantzutearren, neskatilari etxera joan behar al zen galdetu zion. Umea ziztu bizian altxatu eta korrika batean joan zen etxera, berandu zelako.

Hurrengo egunean, neskatala Elurrengana joan zen eta, aurreko egunean bezala, denbora dezente egon ziren jolasean. Horrela, umeak panpinarengana joaten jarraitu zuen. Elur geroz eta alaiago zegoen. Egun batean, neskatilak beste ume batzuk ekarri zituen panpina ezagutzeko eta berarekin jolasteko.

Bikain pasatu zuten guztiek batera!

Orduan, umeek, herri guztian zehar azaldu zuten panpinarekin zein ondo pasatzen zuten eta, horregatik, leku guztietako jendea Elurrengana joaten hasi zen berarekin jolastera eta hitz egitera.

Egoera hori ikusirik, Elur konturatu zen ume guztiak zoriontsu zirela berarekin eta bera ere zoriontsu sentitzen zela.

Bihotzak ez du zoriona ematen, norberaren baitan dago!



*Kaiet Heis*  
*Laugarren taldea*  
*3. saria*

*Ipuina*

*Balantziana*  
*20*

*Ur eta Elaiaren abenturak*





## *Ur eta Elaiaren abenturak*

Bazen behin herri txiki bat, Otxandio izenekoa. Otxandiok biztanle gutxi zituen, eta biztanle horietako batek Elaia zuen izena. Elaiak hamar urte zituen, ile marroia zuen, begi berdeak eta txakur txiki polit bat zeukan. Txakurrak Ur izena zuen eta guztiz zuria zen. Elaiaren lagunik onena Ur zen eta leku guztietara beti elkarrekin joaten ziren.

Egun batean, Elaia, Ur eta bere gurasoak mendira joan ziren egun pasa. 10:00ak inguruan etxetik irten eta mendirantz abiatu ziren. Plana Anboto mendira igotzea zen eta, poliki-poliki, mendia igotzen hasi ziren. Ordu pare bat aritu ziren mendia igotzen eta gailurreraino ailegatu zirenean harrituta gelditu ziren, bista harrigarriak zeudelako.

Nekatuta zeuden, mendi oso altua igo baitzuten. Urek mingaina kanpoan zeukan Elaiaren leporaino igo zenean, egarriak jota zegoelako. Horregatik, Elaiak basorantz eramanean zuen ura aurkitzeko asmoarekin. Minutu pare batzuk eta gero, ordea, dena iluntzen hasi zen. Ekaitza zetorrela konturatu ziren, eta azkarrago hasi ziren ibiltzen ura aurkitzeko eta gurasoekin lehenbailehen elkartzeko.

Lurra oso zikina zegoen, lokatz pila bat zegoelako. Oso zaila zen ibiltzea. Lokatzak arropa guztia zikintzen zuen eta Elaiak Ur eskuetan hartu zuen honen hankak ez zikintzeko.

Zerua ilunago jartzen hasi zen ekaitz-hodei gris handiekin. Elaiak eta Urek azkenean ibai txiki bat aurkitu zuten. Oso polita zen, txikia, loreak zituen inguruan, adar asko lurrean zeuden...

Elaiak Ur lurrean laga zuen, ura edan zezan. Ur ura edaten zegoen bitartean, Elaiak zarata batzuk entzun zituen inguruan. Ur berriro eskuetan hartu eta ahotsak non-dik zetozen ikustera joan ziren. Elaia nahiko beldurtuta zegoen, inor ez zuelako ikusten eta ahotsak bakarrik entzuten zituelako.

Oraingoan, gehiago entzuten zituen, eta urrunean zeozer mugitzen ikusi zuen. Poliki-poliki gerturatzen hasi ziren. Orduan, adarren artean, ibaiaren bazter batean asko mugitzen zen zerbait ikusi zuen. Hasieran, Elaiak arrain bat harrapatuta zegoela pentsatu zuen, baina zer zen ikusterakoan... lamia bat zela konturatu zen!!

Elaia ezin sinisturik zegoen, eta nahi gabe Ur lurrera bota zuen. Ur lamiarengana joan zen eta lamia usnatzen hasi zen. Lamia oso beldurtuta zegoen eta irteten saiatu zen, baina ez zuen lortu.

–Kaixo... Elaia naiz. Zuk nola duzu izena? –galdetu zion Elaiak.

Lamiak ez zion erantzun, bere eskuekin saiatu zen behin eta berriz adar haiek kentzen, eta azkenik oso beldurtuta erantzun zion:

–Nik... nik... Alinda dut izena eta ur hauetan bizi naiz –erantzun zion lamiak.

–Kaixo, Alinda. Pozten naiz zu ezagutzeaz. Arazoren bat daukazu? –galdetu zion berriz Elaiak.

–Bai, harrapatuta nago eta ez dakit hemendik nola irten –erantzun zion lamiak.

–Lasai! Guk lagunduko dizugu! Ezta, Ur? –galdetu zion Uri poz-pozik.

–Guau!! –oihukatu zuen Urek.

Elaia bere txakurraren laguntzaz adarrak poliki-poliki kentzen hasi zen, lamiari minik ez egiteko.

Txakurra ahoarekin hostoak kentzen hasi zen lamiaren ileetatik. Bitartean, Elaiak adar asko bota zituen ibaiaren ondoko belarretara. Azkenean, bakarrik adar bat gertatzen zen kentzeko.

Adarra oso handia zen eta Elaiari asko kostatu zitzaion kentzea. Ur oso txikia zenez, ez zuen asko lagundu, baina, beno, ahal zuena egin zuen. Azkenerako lortu zuten adarra kentzea lamiaren gainetik. Lamia oso pozik jarri zen.

–Eskerrik asko, Elaia –esan zion Alinda lamiak, poz-pozik.

–Ez horregatik! Orain lasai joan zaitezke eta ondo pasa ur azpitik –erantzun zion Elaiak irribarre batekin.

Lamiak irribarre bueltatu zion eta ur azpitik, beraien ondotik desagertu zen.

Elaia pozik zorutzen zegoen lamia bat ezagutu zuelako eta lagundu ziolako.

Elaia oso nekatuta zegoen. Harri batean eseri zen pixka bat deskantsatzeko eta, eskumarantz begiratu zuenean, Ur nahi gabe labaindu eta ibaira jausten ikusi zuen.

–Guau, guau!! –oihukatu zuen Urek oso beldurtuta.

Elaia ibai ertzetik korrika hasi zen Ur ibaian zegoela ikusterakoan. Ibaiaren korrontea oso azkar zihoan eta berarekin batera baita Ur ere. Gainera, momentu horretan bertan euri-zaparrada itzela hasi zuen.

Lurra berehala lokatzez bete zen.

–Lasai, Ur! Oraintxe aterako zaitut uretatik –esan zion Elaiak negar zotinka.

Urek ibaian behera segitzen zuen, gelditu barik, ur-korronte bortitzarengatik. Elaiak ezin zuen korrika gehiago egin; hainbeste korrika egin zuen ezin zela mugitu ere egin.

–Lasai, Ur!! –esan zuen Elaiak eskuarekin bere txakurra seinalatuz.

Bat-batean, Elaiaren ondotik lasterka zihoan zerbait, oso handia, oso azkar pasa zen. Elaia oso harrituta gelditu zen, baina ez zuen izan denborarik zer zen ikusteko eta han bertan begiak itxi zituen eta hantxe gelditu zen, ezer egin gabe. Bitartean, Urek ibaian segitzen zuen eta izaki handi hura urperatu zen eta Ur erreskatatu zuen. Urek zauri batzuk zituen, ibaian behera zihoanean egindakoak.

Elaia lurrean etzanda zegoen, erabat bustita euriarengatik, eta guztiz akituta. Begiak itxita zituen.

Ur metro batzuetara zegoen. Ondoan, ibai barruan, lehengo lamia agertu zen, Alinda. Lamiak Elaia poliki-poliki hartu zuen ibaiko harriekin ez jotzeko. Uretatik, bere burua busti gabe, izaki misteriotsu hura eta Ur zeuden tokira eraman zuen. Urek Elaia ikusterakoan zaunkaka hasi zen, beti egiten zuen moduan; baina Elaia ez zen esnatu. Lamiak izaki misteriotsuari eman zion Elaia, baina lehenengo lamiak eskuan musu bat eman zion irribarre batekin. Gero izaki horri eman eta honek Elaia eskutian hartu zuen.

–Elaia ondo zaindu –agindu zion lamiak.

–Zu lasai! Ondo egongo da –erantzun zion izaki misteriotsoak.

Izakiak Elaia beren eskuetan zeraman, eta txakurra aldiz bere lepoan. Kobazulo batera iritsi zirenean, izakiaren etxera hain zuzen ere, Elaia ohean laga zuen, oraindik konortea galduta.

Urekin batera, sukaldera gauzaren bat jatera joan ziren. Minutu pare bat pasata, zorionez, Elaia esnatu zen. Poliki-poliki begiak zabaltzen hasi zen.

–Non nago? Eta Ur? Nor zara zu? –galdetu zion Elaiak izakiari.

Ur, Elaia esna ikusterakoan, korrika batean Elaiaren gainera abiatu zen, eta biek elkar besarkatu zuten. Elaiak bi musu eman zizkion txakurrari oso pozik.

–Kaixo. Zer moduz zaude? –galdetu zion izakiak.

–Zu...zu Basajaun zara, ezta? –galdetu zion Elaiak aho zabalka.

–Bai, ni Basajaun naiz –erantzun zion izakiak.

–Eta zergatik gaude ni eta nire txakurra zurekin? –galdetu zion Elaiak ezer ez zuelako ulertzen.

–Beno... Ni basoaren zaindaria naiz eta, zure txakurra ibaian behera ikusi nuenean, korrika abiatu nintzen zure txakurra erreskatatzeko asmoz, ez zedin ito. Alinda lamiak, aldiz, zu ikusi zintuen zorabiatuta, bere eskuetan hartu zintuen eta niregana ekarri sendatzeko. Nik orain gauden tokira ekarri zaitut, nire etxera –erantzun zion Basajaunek.

–Ba, mila esker, Basajaun –esan zion Elaiak.

–Plazer handiz egiten dut!! –erantzun zion Basajaunek irribarre batekin.

–Orain eramango gaituzu gure gurasoengana? Kezkatuta egongo dira honezkero –erregutu zion Elaiak.

–Bai, noski, baina ahal duzu gure sekretua gorde? Ez dugu nahi inork jakitea hemen bizi garenik. Eta sekretua gordetzen baduzu... zure etxera iristen zarenean, sorpresa bat aurkituko duzu! –esan zion Basajaunek.

–Noski, zuen sekretua esku onetan dago! –erantzun zion Elaiak irribarre batekin.

Orduan, Basajaunek Elaia eta txakurra bere esku handietan hartu zituen eta bakoitza bere sorbalda banatan jarrita basoan zehar abiatu zen. Basoa amaitu zenean, Ur eta Elaia lurrera jaitsi zituen eta hirurek elkar besarkatu zuten.

–Laster arte, Basajaun! Mila esker zure laguntzagatik eta asko zaindu –esan zion Elaiak masailean musu bat ematen zion bitartean.

–Laster arte, Elaia –erantzun zion Basajaunek Elaia besarkatuz.

Gero, Basajaun zuhaitz handi batean ezkutatu zen, eta Urek eta Elaiak buelta eman eta gurasoengana abiatu ziren. Ailegatu zirenean denek elkar besarkatu zuten.

–Laztana, non sartu zara hainbeste denboran? –galdetu zion amak besarkatzen zuen bitartean.

–Lasai, ama. Ur eta biok kobazulo batean gelditu gara euria hasi duelako, eta atertu duenean zuengana abiatu gara –esan zion Elaiak.

Gero, Elaiak Basajaun ikusi zuen urrunean eta biek batera irribarre egin zuten agurtzeko. Ondoren, Basajaunek buelta eman zuen eta poz-pezik basoko ilunpean desagertu zen.

Elaia etxera iristeko irrikaz zegoen, Basajaunek esan zion sorpresa zein zen jakiteko. Azkenean, bere gelan sartu zenean, ohar bat aurkitu zuen kutxa txiki baten ondoan, eta oharrak hau esaten zuen:

*Kaixo Elaia,*

*Zure jokabide eredugarria saritzeko, egun batean uretan berririo arriskuan zaude-  
nean bakarrik erabili dezakezun botere handia ematen dizugu. Hori gertatzen bada, jan  
ezazu kutxan dagoen goxokia eta lamia bihurtuko zara, salbu egon arte!!*


*Basajaun eta Alinda.*

Elaia oso pozik jarri zen oharra ikusterakoan.

–Gaurko abentura ahaztezina beti nirekin eramango dut, eta espero Basajaun eta Alinda gure hurrengo abenturan berriz ikustea. Ezta, Ur? –oihukatu zuen Elaiak.

–GUAU! –erantzun zuen Urek.





Ibai Redondo  
Bosgarren taldea  
1. saria

*Ipuina*

*Balantzia*  
20

*Balkoi ilustratuak*





## *Balkoi ilustratuak*

*J*oder, horrela ezin da bizi. Hau puta mierda bat da. Inork ikusten ez duen bitxo batek etxean giltzapetu gaitu. Bueno, gaitu... Giltzapetu nau. Giltzapetu naute, ze nire ama derrepente tonto jarri da. Lagunak atzo gauean lokalean eta ni etxean... Palomitak jaten, uso bat naizelakoan edo ze ostia! Instagramen sartuko naiz... Bla, bla, bla... Ostra, "12:30ean Eroskin kedada. Janire". Bua, eskerrak, arnasa hartzera noa, hemen ezin da egon eta!

–Amaaaaa!

–Zer?

–Eroskira noa, gaur nik egingo ditut erosketak. Zer behar da?

–Ogia, arrautzak...Eta komuneko papera, bi pakete.

Barrenkaletik behera jendez mukuru egoten diren kaleak hutsik ageri ziren. Paretetako kartel eta pintadez gain ez zegoen ezertxo ere. Kalean behera zihoala Kortazarrra begiratu du, atea itxita eta pertsiana jaitsita. Ordura arte ez zen konturatu ere egin tabernak pertsiana zuenik. Atera hurbildu zen ea orrian zer jartzen zuen irakurri asmoz: *"Coronavirusagatik itxita. Eusko Jaurlaritzak ez du erabaki irmorik hartzen, baina Kortazarreko arduradun eta langileok gure bezeroak zaintzen ditugu. Zaindu eta egon etxean"*. Alai irten zen kalera baina kezkatzen hasita zegoen. Kalean behera Eroskirantz jarraitu zuen, han gelditu baitzen kuadrillakoeekin eta bera sekula ez zen beldurtia izan. Gasparrenean, ez-kerrerantz egin zuen kalean barrena eta bere begi urdinek ikusten zutena ezin zuen sinetsi. Ezkerrera begiratu eta Bule kalea, bere luze zabalean, hutsik: ez ume eta ez nagusi;

taberna eta denda guztiak itxita zeuden eta oharrak zituzten atean... Beldurtzen hasia zen, konturatu gabe pausua bizkortu eta Eroskira iritsi zen.

–Aupaaaa, Anne!

–Bua, eskerrak elkartu garen, etxean preso nauka amak.

–Bai, tia, ni ere bai. Kristoren bronka entzun behar izan dut atzo lokalera joateagatik.

–Guraso guztiak tonto bihurtu direla ematen du, Janire; horrela ezin da bizi.

–Zer egingo dugu?

–Joder, ez dakit. Bueno, erosketak egiteko elkartuko gara egunero eta ihesaldiren bat edo beste egin beharko dugu...

–Baiiii. Benga, goazen erosketak egitera.

Egunerokoa, martxoak 14

Bufff. Goizean esnatu eta dena amets gaizto bat izango zela pentsatzen nuen, baina bai zera. Are eta okerragoa, amets gaiztoa beldurrezko pelikula bilakatu da... Pelikula erreala eta ni protagonista. Kaleak hutsik, tabernak eta dendak itxita, Pizzekoen lokala ere itxita... Horiek itxita badute, hau benetan da larria! Eroskira joan eta dena petatuta. Ostra, justu-justu ogia erosi ahal izan dut, komuneko paperik ere ez zegoen. Etxera iritsi eta bazkalordua infernu bat izan da. Amak eta telebista zahar horrek txapa iguala daukate, koronabirusa gora eta koronabirusa behera. Lagunen gurasoek ere berdin eta ni... Ba nik ezin dut horrela bizi eta oso aztoratuta nago. Haserre amarekin, haserre telebistarekin... Dena debekatu digute, ostia, dena! Ezin gara kalera joan, lagunekin egon... Arratsalde guztia nire gelan sartuta. Joder, zigarro bat behar dut. Oxigenorik gabe gelditzen ari naiz gela honetan. Puff, eskerrak Brigade Locori. Musika tope jarri eta hementxe geldituko naiz, birus nazkagarri hori pasatu arte.

Etxe gehienetan antzeko egoera bizi izan zen koronabirusaren lehen egun hauetan. Bergararako kaleek gero eta basamortuago ziruditen. Jauregien herrian jaun eta jabe ziren dorretxeak, entendimentuz jantzitako erraldoi gris eta eleganteak. Laster, Don Quijoterentzat Mantxako Errotak lege, bergararentzat mamu erraldoi bilakatuko ziren. Fatxada hutsak, kanpotik jantziak, barrutik biluzik, Etxebeste herria. Jakinduria-

ren, Ilustrazioaren epizentro izan zena nagikeriaren, ezjakintasunaren ikur bilakatzen ari zen. Basamortuan arratsaldeko zortzietako txaloez eta erregeari ateratako lapiko soinuek apurtzen zuten eguneroko herriko errituala. Baina Bergara gogor kolpatuko zuen gertakaria gertatzear zegoen: izua, ezinegona eta terrorea behe-lainoa bezala zabalduko zuen, poliki baina bai gabe; etxeko leihotatik, ate azpitik edo tximiniatik, koronabirusarekin batera izurrite kottela zetorren... Bergarako Plazako Lau Teilatuetako teilak ere dardarka hastear zeuden.

Bidekurutzeta 22, Iturbe etxea. Dekadentzia. Etxearen sarreratik Lap Topa piztuta ikus zitekeen eta Telebistak ere argia egiten zuen; Teleberrian Arantza Tapia ari ziren elkarriketatzen. Bere hitzak argi entzuten ziren, baina aldi berean txorroten bat zabalik zegoela zirudien, tak-tak-tak... Tanten tak-tak-takak ez zuen etenik. Sudurrak zabalduz gero, marihuana usaina eta kirats puntu bat nabaritu zitezkeen, organikoaren kuboak ateratzen duenaren antzekoa. Tak-tak-tak soinuarekin batera tik-tak tik-tak isil batek baretasuna apurtzen zuen. Tak-tak-tak, tik-tak, tik-tak... Maurice Ravelen "Pavane pour une infante défunte" obraren erritmoetara. Eta zaunk! Begi zulo itzelak, adurra barra-barra, sabelak ia lurra ukitzen zion bulldog geldo, zikin eta zorritsu bat zen, bere jabearen dekadentziaren ispilu. Bulldog hura eta bere jabea anaia bikiak ziren, erreka bereko bi tanta lohi. Zaunk eta lanturu hits etsiak krimenaren aztarna biziak ziren. Tak-tak-tak hura ez zen ur txorrotarena, sukaldeko mahai zurian behera isurtzen ziren odol tantek ateratzen zuten hotsa baizik. Dezibeliotan baxu, etxe huts hitsean bu-runba egiten zuten tantek, tak, tak, tak...

Bidekurutzeta 1, 2A. Hondartza Dorrea. Dorre mitikoa etxe mistiko bilakatua. Energiak, txakrak, mundu mistikoak besarkatu; arrazoiaren, argiaren bideak abando-natu; urrutiko jainkoen eta gertuko liderraren gurtzari bizia eskaini. Tok, tok, tok. Herriotzaren soinua zen. Mireia esna zegoen oraindik. Mesanotxean utzi zuen Sherezadere-n "Mila eta bat gauak". Herio zen Mireiaren etxeko atea kolpatzen ari zena. Heroia ala eroa atea ireki eta segidan labana sentitu zuen sabelean barrena, hezte mehea eta ondoren lodia, ondoren pankrea... Behetik gora txerria kanalean lege-z bere burua er-dibitzen sentitu zuen. Begietara begiratu zion herioari, Shahriar sultana ikusi zuen... Edo ez... Bere segaren zorrotasunaz jabetu zen berehala eta negar malko batek ihes egin zion aurpegian behera, sultanaren eskuetan bazekielako biziak ihes egin ziola, Bag-dadera, Tripolira... Nork daki. Eskueta zuen segapotoa lurrera erori zen eta bere bu-

ruarekin batera lurra kolpatzean zarata siku eta hotza entzun zen. Krimenaren soka luzea bezala, lehenengo hari fina zena ondoren odol erreka bilakatu zen etxean barrera, krabelin gorria lekuko zelaririk. Ferrer Guardia, Federico Urales eta Angiolilloren krabelinak, “Sembrando Flores”, haziak erein, Germinal.

San Martin 2, 1 A. Jauregi Etxea. Bizioa. Hurrena. Gorka “Fornite Battle Royal” bideo-jokoan bezala bizi zen bere etxeko irlan. Mundu birtualean bizirik edo, bere barne munduko minetatik urrundu nahian, anfetaminei tira eginez, snif. Anfetamina eta antsiolitikoak ziren bere babesa edo ezkutua. Baina Forniten bezala ezkutu horrek ezer gutxirako balioko zion. Oraingoan bere inguruan sortu zen lur ekaitzak bera jango zuen. Ordenagailutik burua altxa, usoak bezala burua biratu eta zonbiaren begi ilunekin egin zuen topo. Ez zekien bere “Lenovo Core 13”tik apartatu zenean oraindik Forniten jolasten jarraitzen zuen edo gau hartako anfetamina marrazoek delirium tremensa eragin zioten. Baina begi aurrean zuen zonbiak aizkoraren punta zorrotza altxa zuenean partida amaitu zela jakin zuen. Game Over, Gorka.

Egunerokoa, apirilak 1

Ia 15 egun goaz etxean itxita. Uste nuen ni zoratuko nintzela, baina amamaren alzheimerrek beldurra ematen dit. Askoz okerrago dago; balkoitik begira, begirada galduta egiten ditu orduak. Dagoeneko ez nau ezagutzen eta ama ere ez. Ez du hitz egiten eta, okerragoa dena, edozein momentutan oihuka hasten da. Baina orain pare bat gau gertatutakoa izugarria izan zen, ematen zuen leihoak ere apurtuko zirela. “Suga arrasto, kukulum be, jangoikuan grazian ez dagona ez da jungo zerura”, “Suga arrasto, kukulum be, jangoikuan grazian ez dagona ez da jungo zerura”. Behin eta berriz errepikatzen ziztuen hitz hauek, gauez, bere gelako balkoiko leihoa zabalik, ilargiari begira; haizeak ileak mugitzen zizkion. Mamu bat ematen zuen, deabrua barnean izango balu legez. Klean ez zen txintik ere entzuten, isiltasuna beldurgarria zen. “Afantsuen etxian sekretu demasekua”, amama dardarka zegoen, bere onetik kanpo, eldarnioetan; eta ni ere ikararuta nengoen, umea nintzenetik lehen aldiz gainean pixa egin nuen... Ni tontoa naiz! Ez da berriz gertatuko, amak behar nau. Amamak ama desesperatuta dauka; askotan ezkutuan negarrez harrapatzen dut. Ez dakit ez lukeen zahar etxera eraman beharko... Joder, amama orain zaharren etxe batean abandonatzea... Okurritzea ere! Pufff. Bukatu dadila kartzelaldi hau, mesedez. Amarekin hitz egin behar dut. Txaposa samarra da,

baina ezagutzen dudan pertsona jakintsuena da. Ea liburuz betetako etxe eta buru horretan erantzunik dagoen. *“Suba arrasto, kukulum be, jangoikuan grazian ez dagona ez da jungo zerura”*. *“Afantsuen etxian sekretu demasekua”*.

–Ama, zer pasatzen zaio amamari? Gauza arraroak esaten ditu.

–Badakizu, alzheimerra txarrera doala.

–Bai. Baina oso mugituta dago. Egun guztian errezatzen egongo balitz bezala: *“Afantsuen etxian sekretu demasekua”*.

–Errezatzen? *“Afantsuen etxia”* Errege Mintegiari deitzen dio. *“Afantsu”*k proiektu zorodun esan nahi du Bergarako euskararen.

–*“Afantsua”* eta Seminarixoa lotuta?

–Bai ba. Bergarako Errege Seminarioa. Bertan ideia zoroko jakintsuak biltzen ziren Ilustrazioan, ilustratuak. Europa guztiko jende jakintsua elkartzen zen ikasi eta ikerzeko. Badakizu zer den wolframa?

–Zer, beste pastel hori?

–Bueno, hori wolfram pastela da. Baina wolframa Elhuyar anaiek Bergarako Errege Mintegian aurkitutako elementu kimikoa da... Bergaran, Lau Teilatu hauen azpian, Olaso Dorrea, Errege Seminarioa...

–Bale, bale ama! Ulertuta. *“Afantsuen etxia”* seminarixoa. Baina zer izango da *“demaseko sekretua”*?

Etxeko andre eta langile. Artxibozain. Alabaren ama, amaren alaba; txikiaren eta nagusiaren ardura. Nerabezaroa, alzheimerra eta bere bizia kudeatu beharra. Motxila pisutsuek, urteen joan-etorriek bezala, bere azalean orbain eta ximurrak areagotu zituzten, begizuloak hondoratzen hasiak zituen, ilea urdintzen eta arima lakartuz. Baina ile, azal, betazal eta begi-zulo beltzak errimel, ezpainetako, tinte eta koloretez apainduta ageri ziren beti. Goizero, ispilu aurrean, Lashcode eta Clarins etxeko *“eyeliner”* zein betazal-altxagailua erabiltzen zituen, Helen Frankenthaler –Minimal Art estatubatuarra– balitz legez, begietatik abiatzen zen obra paregabeari ekinez, zehatzetik osotasun estetikoak lortuz. Baina Ireneren tresna-kutxa ez zen soilik estetikoak. Emakume sofistikatu eta jantzia zen; bere obrek oraindik argirik ikusi ez bazuten ere, altxor bat zen emakumea. Unibertsitatean

lortutako bekak Oxfordera eraman behar zuen udaran aita hil zitzaion eta ondoren bera gaixotu zen. Patuak, patu madarikatuak, jakintzara bideratutako bizitza desbideratu zuen eta orain ardura nagusiak etxean zituen. Ez zuen ez denbora ezta gogorik ere bere bertuteei bide emateko; iritsiko zen garaia. Ez zuen gogorik ezta ere bere maitaleekin harreman sendorik eraikitzeke... tamalez. Gizon bat etxean sartu? Bazuen nahikoa lan. Ohe-kide izan ohi zituen emakumeekin bere etxeko matriarkatua konpartitzeko gogorik ere ez zuen. Gau bakartietan aldiz, Habanako Floriditan dastatutako daikiriez eta La Bodeguita del Medioko ronaz eztarria eta barne gogoak berotu ondoren, Hemingwayren lurralde naturalekin amets egiten zuen, bere etxeko Itakan.

Gmailera mezua. *“Arte kalean etxe batean lapurreta egin eta bertan bizi zen pertsonaren bila ari dira, Goiena”*. Watsapa: *“Arte kalean lapurretan egin duten etxean odol arrastoak aurkitu dituzte”*. Watsapean soinuazko mezu bat: *“Nire lagun baten laguna udaltzaina da eta esan dit etxe osoa odolez beteta aurkitu dutela, baina gorpua falta dela eta bere lekuan krabelin gorri bat utzi dutela. Ikerketa zabalik dagoela, baina ez dakite pertsona edo animalia batek egin duen hori. Baina hipotesi nagusia da magia beltzarekin lotutako ekintza bat izan dela, ze etxean falta den tipoa beltza da”*. Telebistako albistea: *“Dagoeneko hiru dira desagertuta dauden bergararrak...”*. Mundu super-azeleratuan, ezjakintasunak azaleratzen dira eta *fake-news*ek hegan egiten dute

Basamortua, Hego Poloa, Ilargia ziruditen Bergarako kaleek. Albistea bolbora bezala zabaldu zen etxerik etxe, kantoirik kantoi, alde zaharreko karkabetan barrena. Beldurra teilaz teila hedatu zen etxe guztietan barrena, ate guztiak giltzaz itxi ziren, baina beldurra ate azpitik, leihoetako zirrikietatik sartzen zen. Gorputzaren geruza guztiak zeharkatuz, poroetan barrena zainetara, eta bihotz punpen laguntzaz gorputz guztira, hezurretaraino. Hezurren dardarak entzun zitezkeen herrian gau ilun isilean... Klak, klak, klak. Hotzikarazko gauak eta izerdi hotzeko egunak zetozen.

Egunerokoa, apirilak 2

Itota nago. Buruak buelta eta buelta ematen dit. Ideia zoro bat daukat buruan eta zoratzekotan nago. Emmanuel, Emanuel. Snof, animista. Musika korear zalea. Gelako bitxo arraroa. Burua gehiago dauka Japonian hemen baino, gehiago ziberespazioan lurrean baino... Baina hori burua duena. Komiki eta marrazki bizidun gehiago tragatu ditu nik gailetak baino, baina nire ideia zoro hauek berarekin bakarrik partekatu di-

tzaket, bestela ni ere “pringatuen” zakuan sartuko naute. “Suga arrasto kukulum be, jaingoikuan grazian ez dagona ez da jungo zerura”, “Afantsuen etxian demaseko sekretua”... Eta desagerepenekin harremana badute gertaera hauek? Bideo-dei bat egingo diot.

–Aupa, Emmanuel, zer moduz?

–Ba, ba, ba... akojonatuta.

–Bai zera. Etxean seguru gaude.

–Zu beti gogor plantak egiten.

–Bueno, bueno... Eh, ba... Eske. Teoria bat daukat.

–Teoria bat? Zeri buruzkoa?

–Joder, tio. Ba zeri buruzkoa izango da ba! Desagertutako gorpuen ingurukoa.

–Zein teoria?

–Ezin dizut orain esplikatu, gauean Seminarixo parean geldituko gara

–Zeeerrr??? Zu zoratuta zaude!

–Gaueko hamabietan Seminarixoko atean, ez izan kakatia. Agur!

Idea zoro bat zebilen gazte haien buru eroetan bueltaka. Annek mutilaren burua berotu zuen, bonbilla bat balitz bezala. Anne wolframa zen Emmanuelen buru-bihotzean, eroalea edo ero alea. Emmanuel prest zegoen jolas hartan aritzeko, gustuko zuelako, munduaren amaierara ere lagunduko luke. Baina jokoa ez da jolasa; suarekin jolasten duena erre egiten da eta munduaren amaierara gehiegi hurreratzen ari ziren bi gazte haiek. Amildegian dena da hegia.

Pierre François Chabaneau Kimika katedradunak platinoa purifikatu eta xaflakor bihurtzeko metodoa aurkitu zuen, Louis Joseph Proustek muntatu zuen Errege Mintegiko *Laboratorium Chemicum*ean, Europako kimikarien erreferentziazko laborategian. Errege-sekretu bilakatu zen eta N. Thunborgek gorde zuen aurkikuntza kimikoaren sekretua. Bergara, ilustratuen eta jauregien herria, hiria. Europan jakinduriaren erreferente, garapen ekonomiko eta intelektualaren motore izan behar zuen. Aroztegi etxea, Errege Mintegia, Olaso dorrea, Errotalde eta Errekalde jauregiak, Irizar jauregia... Dekadentzia, endekapena, lukurreria, bizioa... dira gaur nagusi Lau Teilatuen azpian. Hondartza dorrea, Jauregi etxea, Iturbe etxea... Hiru jauregi, hiru krabelin gorri dekadentziaren hiribilduan.

Hiru aldiz joan zen komunera arratsalde hartan Anne. Gogor plantak egin zituen skypez, baina beldurrak airean zegoen. Komunean eserita zegoen bitartean ateko maratilari begiratzen zion pentsakor. Bere burua islatuta ikusten zuen urrez galbanizatu-tako platinozko maratilan, bere irudi karkailaren lekuko hotza, urrezko maskara plati-nozko aurpegian. Zer gertatuko zen maratila zabalduz gero? Zer ezkututzen da ate bakoitzaren atzean? Beldurra ematen zion buruan zuen ideia zoroaren atzetik jarrai-tzeko gainditu behar ziren atea gainditzeak. Beldurra ematen zion bere barruko ma-ratila eta atea irekitzeak; amama Pantxiketik zioen bezala, etxe denetan “ate adina ma-ratila”. Skypetik izan zuen hizketaldi laburrean, Emmanuel mutil argal mengelaren aurpegi zuria ikusten zuen bitartean, mutilaren begi urdinei begira sabelean tximele-tak aineratu zitzaizkion. Istant batez, bere barne mundura begiratu eta, Joseba Sarrio-naindiaren mendea eta segundoa gurutzatzen diren leku horretan, Uxueri egun gutxi lehenago mingain eta guzti eman zion muxu eztiak gogoratu zen. Eta indarrez tira egin zuen katetik, pentsamendu likits horiek guztiak komun zuloan behera urruti joango zi-relakoan.

Iritsi zen ordua, 23:55. Anne San Martin plazan bizi zen, etxeko portaletik irten eta 10 metrora zuen Seminarioko atea. Emmanuel bera ere enparantza bereko pisu batean bizi zen; Anneren portalaren parez pare zegoen berea. Koronabirusaren krisiagatik eta batez ere hilketen ondoren, pertsona baino polizia gehiago zebilen kalean. Gau ilunean, plazaren erdian ilargipean, txakur uluek gauaren isiltasuna apurtzen zuten eta leiho ba-tzuetan wolframaren laguntzaz piztutako izpiak ageri ziren bizi froga gisa. Leiho haie-tako batetik begira zegoen amama deslai, ezker belarria ukituz sonotonearen bolumena goratuz ari balitz bezala, bere katu begi anpuluek ikusten zutena egia ez izatea desio zuen: “*Neska anpolaixa, baina frantxuletia. Nere belendriña nora zoiaz?*”. 23:59. Etxetik ir-ten aurretik ispilura begiratu, buruzapia estutu eta ezpain gorriak ongi margotuak zi-tuela ziurtatu zuen. Anne etxetik irten zen isil-misilka, hanka-puntetan. Pitxitxi katuari isilik egoteko erregutuz, marru egin zuen hark, belarriak tente, kezkatu aurpegiarekin bere katu zentzuek arriskua sumatuko balute bezala. Segundo gutxitan arnasestuka Se-minarioko atearen alboan zegoen, zutabe batera itsatsita, inork ikusi ez zezan. Bihotza indartsu eta azkar, oso azkar punpatzen ari zen; uste zuen bere aho lehorretik gora ir-ten behar zitzaiola, edo okerragoa zena, bere arnas ahokadak plaza guztian entzuten zirela. Hori gutxi balitz, Emmanuel falta zen. Itolarria, beldurra, haserre... sentitzen



zuen, eta eztanda egitekotan zegoen, mutilaren portaleko atea ixten entzun zuenean. Orduan lehertu zena bere izpiritua izan zen. Sentimendu guztiak kontrako norabidean gurutzatu ziren abiada bizian. Bere barne muinek New Yorkeko Broadway eta Fifth Avenue-ko bidegurutzeta ematen zuten... Bat-batean errealitatearekin topo egin zuen.

–Anne, zer gertatzen zaizu?

–Barkatu, nire munduan nengoen.

–Zure mundu hori ondo txoratuta dago ba!

–Utzi pitokeriak. Hipotesi bat daukat, uste dut hiru hildakoak hemen, Errege Seminarioan daudela.

–Zer esaten ari zara? Zu burutik sano zaude?

–Bai. Seguru nago. *“Suba arrasto, kukulum be, jangoikoan grazian ez dagona ez da jungo zerura”, “Afantsuen etxian sekretu demasekua”.*

–Eee!

–Bai. Gauza bera esan nuen nik amamari hitz horiek entzutean. Baina amak lagundu dit hieroglifikoa deszifratzen.

–Kontuz! Argi urdinak. –Biak zutabe beraren atzean makurtu eta ezkutatu ziren. Annek Emmanuelen arnasa beroa bere aurpegian sentitzen zuen; orain hankak dardarka eta eskuak izerditan zituen. Semaforo gorriak berde jarri ziren Broadwayko bidegurutzeari eta istripua gertatzekotan zen. Anneren ahoak Emmanuelen ahora egin zuen eta Anneren mihiak Emmanuelenean fereka egin zuen igurtzi heze eta bero batean.

–Barkatu. Nahi gabe izan da. –Mutilari mokolo aurpegia gelditu zitzaion. Begiak plater itxuran eta ahoa oraindik zabalik.

–Eee, oooo. –Zerbait atera zen Emmanuelen ahotik.

–Bueno, hori. Amamak leihotik ikusi zuela hiltzailea gorpuak hona ekartzen. Hiltzailea –“sugea”– ikusi zuen amamak, bere “arrasto”a plazatik “afantsuen etxera”, hau da, Errege Seminarioa. Konturatzen zara?

–Eeee, bueno, bai. Badu bere logika. –Gezurretan ari zen, ez zuen inondik inora hipotesi hori sinisten, baina, bere lehen muxuak leloturik, bizi osoan bere jainkosa izango zen Annerekin egon nahi zuen.

–Ba goazen barrura!

–Nola?

–Nire amaren Artxiboko giltzak ditut. “Giltza gakoak” dira, udalaren edozein erai-kin zabaltzeko balio dute.

–Itxaron! Eta behin sartuta, zer? Errege Mintegia izugarri handia da. Non egongo dira gorpuak? Ikastolan? UNEDen? Elizan? Itxoin bihar arte. Seminarioko egitura aztertuko dut eta ikerketa-esparrua mugatuko dut.

–Joderrrr. Arrazoia duzu, listomari! –Momentu hartan Seminarioan zarata bat entzun zen... Odola izoztu zitzairen, bihotza bat-batean gelditu, isiltasuna argi eta garbi entzun zitekeen...

–Miauuuuuuu. –Egin ote zuen katuak?

–Ostras. Eskerrak, katu bat, goazen etxera.

Etxera iritsi orduko Emmanuel lanean ari zen. Mutil berezia zen mundu berezian. Kolonbian jaio, Euskal Herrian bizi, BTS musika korearra entzuten zuen. RM, Jin, Jimin, Suga, V, J-Hope eta Jungkook bere zazpi kideak idolatratzen zituen. BigHit Entertainment BTS taldearen marketing eta komunikazio agentziaren ekimenez mundu mailan korearra hitz egiten ikasten ari ziren milaka nerabeetako bat zen martxoaren 24tik. Iru-dimen handiko mutila zen; horretan asko lagundu zion Anime mugimendu japoniarreko fan-klubeko kide izateak. Gogoko zituen Mamoru Oshiiren serieak, umetatik txunditu zuen Miyazakik eta bere Cagliostroko Gazteluak; bereziki Maurice Leblanchek sortutako pertsonaiak: Lupen III.a lapurrak. Lupen III.ak bezala, orain berak ere misio bat zuen, bere Anne maiteak jarritako ezinezko misioa: Errege Seminarioko hiltzailea eta bertan ezkutatutako gorpuak aurkitzea. Emmanuelentzat zoritxarrez bizitza ez zen fikzioa, eta errealtatean, Koichi Zenigata Interpoleko polizia barik, ehiztari bat zegoen aske eta gazteen ehizan.

Urduri zegoen ohean Anne, lo hartu ezinda. Bere egunerokoan xehe-xehe idatzi zituen azken 24 orduetako gertaerak. Ondoren, horrelakoetan egiten zuen legez, musika jarri zuen lo egiteko: “Underground kulturaren militanteak gara, rock and roll errebeldearen soldaduak”. Lokartzeaz zela, etxeko atea iruditu zitzaion; urduritu egin zen, baina ondoren bere amaren gelan xuxurlak entzun zituen; ezaguna zitzaion mai-talearen ahotsa eta lasaitu egin zen. Inoiz ez da jakiten nor duzun benetan alboan lo-

tan. Egin lo maitea. Bolumena goratu zuen orduan “underground kulturaren militanteak gara”. Gazte haien musika ez nuen gogoko, baina letra hark zentzu osoa zuen ni-retzat.

–Bai...

–Egunon, Anne.

–Zer ordu da baina hau Skypez deitzeko?

–7:30 eta oraindik ez naiz lotara joan.

–Goitik behera aztertu ditut Errege Seminarioko planoak... Eta gorpuak hor badaude, badakit non egon behar diren.

–Non?

–Kontzertuak eta antzerkiak egiten diren elizan. Erdi erdian. Bertan Andres de Madariaga izeneko baten hilarria dago...

–Ados. Ba gaur hamabietan sartu eta argituko dugu misterioa.

Minutuak ordu eta orduak egun bilakatu ziren bi gazteentzat. Amak Ohian Beltzetik ekarritako Hubert Herr kuku-erloju zaharraren torlojuak herdoilduak ziruditen. Ohian Beltzeko baserri tipikoa eskuz tailatua zegoen, txikitasunaren alegoria, ertzik ertz osatua: tren, errota eta garai bateko Habsburgotarren menpeko lurraldetako laborarien irudiek Jan Van Eycken “*peinture de genre*” koadro batetik ateratakoak ziruditen. Ordu-erdiro kukuak bere burua etxolatik ateratzen zuen kuku eginez; ondoren, mantra legez, Anneren belarrietara sartzen ziren Friburgeko orkestra barrokoaren melodia lodiak. Erlojuaren sokatik tira egin zuen Annek denborari aurrera eragiteko asmoz, baina atzerakontua hasita zegoen berarentzat 10, 9, 8, 7...

6, 5, 4, 3, 2, 1. Azkenean iritsi ziren hamabiak eta Seminarioko atean egin zuten zita bi gazteek, kanposantuko sarreran egongo balira legez. Hildakoak bakean utzi, bizitzari eustea besterik ez eta heriotzaren harlauza altxatzeko asmoz ziren. Errege Mintegiko meteorologia-estazioetik gora begiratzuz gero, ilargi betea ikus zitekeen lau teilatuen erdian, San Pedro elizako kanpandorrea testigu isil zelarik. Bele beltz batek ilargi betean itzal egin zuen orduan. Poltsikotik azkar giltza atera eta nekez sartu zen sarrailan, dararak pultsuari traizio egin balio legez. Azkenean, bi biraren ondoren, zabalik zen atea. Hanka-puntetan aurrera egin zuten mugikorreko linternaren laguntzaz. Jasota zeuden harmailei eskuinetik iskin egin eta Seminarioaren erdian paratu ziren. Barroko estiloko

eliza eraberritu berria zen, egun ikuskizun anitzetarako prestatutako aretoa zelarik, baina elizaren egitura originala gordeta. Aurrean oihalek estalitako eszena-tokia zuten eta eszena-tokiaren atzealdean elizaren erretaula, Jesukristo nagusi. Goian elizaren kupula, eta azpian Andres de Madariaga XVII. mendeko zaldun bergararraren omenez eraikitako harlauza edo oroitarria eta bere gorpuzkiak... Andres de Madariaga ez zegoen bakarrik gazteen hanken azpian; hezurren memoriala, izpirituen panteoia esnatzen ari zen, bertatik irteteko Pandoraren kaxa noiz zabalduko zain. Seminarioak hilerria zirudien eta hileta hastear zegoen. Bi gazteak gelditu zeuden eraikinaren erdian, gorpuak beraien hanken azpian zituzteneko sentsazioarekin. Mugimendu txikiak eragindako zaratak elizaren kupularen azpian izugarritzko oihartzuna ateratzen zuten, eta hildakoak esnatuko zituzten beldur ziren. Funtzioa hastera zihoan.

Klak-klak sarraila zarata entzun zen haien atzean. Elkarri begietara begiratu zioten gazteek; aurpegiak zurbiltasuna ikararen lekuko zen. Arnasa eten, odola koagulatuta eta ileak tente jarri zitzaizkien. Bikotearen eskuek topo egin zuten eta gogor heldu zioten elkarri. Seminarioko organoa hitz egiten hasi zen; musika-notak entzuten ziren; Johann Sebastian Bach ilustratuaren Clavier-Übung I melodia famatua beldurgarri bilakatu zen. Belarrietatik barrena terroreak gazteen ernamunetarako bidaiatu zuten, arima ere izoztuz. Apirila izan arren, gazteen aho zuloetatik aire urria behe-laino legez ateratzen zen.

Eszena-tokiko oihala poliki-poliki zabaltzen zen, musikak etenik ez zuen bitartean. Kandela gorriak piztuta zeuden eszena-toki iluna argizatuz, borobilean jarrita. Erdian Annek azkar asko ezagutu zuen objektua zegoen, bere eguneroko gorria, bere sekretu guztien gordailua. Orain bere sekretuak eta bizitza beste norbaiten esku zeuden. Egunerokoak gainean bi krabelin zuri zituen gurutzaturik. Herioren presentzia senti zezaketen airean, bere sega zorrotzak beraien lepoak noiz moztuko zain.

Orduan, barrunbeetatik zetorrela zirudien gizon ahots beldurgarri bat entzun zen, barre-argara zoro baten aurretik.

–Anne eta Emmanuel. Heriotzaren bidean doazen ate guztiak zeharkatu dituzue. Orain zuen ordua iritsi da. –Klank gogor bat entzun zen Seminario erdialdean eta segidan bi gazteek oihu egin zuten. Gazteen alboan obretako tresna bat agertu zen.

–Hartu desenkofratzekoa bion artean eta altxatu oinen azpian duzuen harlauza, aurrez kristala kontuz alboratuz. Andres de Madariaga errege-zaldunaren omenezko oroi-

tarriaren azpian daude zuen lagunak, gizon honen azpian, ea hil ondoren zerbait ikas-  
teko gai diren. Aurkitu dituzue.

Gazteek beldurraren beldurrez, txintik esan gabe obeditu zioten beste dimentsio ba-  
tetik zetorrela zirudien ahots misterioitsuari. Nekez altxatu zuten harritzarra. Beraien  
etorkizun krudela zizelkatzen ari zirela pentsatzen zuten, beraien hilobia lantzen.

–Anne, hartu eszena-tokiko egunerokoa eta bi krabelin zuriak. Eman bat zure la-  
gunari. Eta orain sartu zuloan zure egunerokoa eta gogoan hartu hitz hauek betiko.

Egunerokoak zuloan behera egin zuen bideak bere buruak eta Emmanuelenak  
egingo zutena oroitarazi zion Anneri. Gorpu ustelen usainak beraien sudurretara iri-  
tsi zirenean, oka egin zuten elkarrekin zulora. Gazteek uste zuten beraien bizitzaren jabe  
zen ahotsak azken hitzak esango zituela, eta hala zen. Bizirik lurperatuak izatea baino  
heriotza krudelagorik ba ote da? Zulo sakon hartan, hainbat gorpu deseginen alboan,  
harlauza pisutsua gainean... Eskutik heldu zioten elkarri gazteek eta nonbaitetik in-  
darra aterata muxu ezti bat eman zioten elkarri, azken hitzak entzuteko prest.

–Hartu gogoan nire hitzak. Errege Seminarioa herri honen kultura eta garapenaren  
tenplua izan zen. Etorkizun oparoa zain zuen Bergarak. Europa ilustratuaren pizkun-  
dearen epizentro izan zitekeen! Zer bilakatu da? Ilustrazioak, wolframak argia ekarri  
zion garai ilunari. Platinoaren onurak ikertu zituen Chabaneauk eta erregearen agin-  
duz sekretua gorde zuen zintzo. Ni harlauza honen azpian dagoen Madariaga zaldu-  
naren oinordekoa naiz, bere biloben biloba. Ez naiz hiltzailea, garbitzailea naiz, garbi-  
zalea. Utzikeriak, bizioak, sineskeriak.... lurperatu ditut zuloan; arrazoiak, kulturak,  
jakintzak argia ikus dezaten. Orain, Anneren egunerokoa eta zuen bion oroitzapenak  
ere bertan daude. Ni ere *underground* kulturaren militantea naiz, Ilustrazioa *underground*  
gelditu baita gaurko mundu honetan. Horregatik, sekretua gordeko duzuelakoan alde  
egiten utziko dizuet. Zuen bizitzak nireak dira. Gertutik zainduko zaitut.

Klak-klak. Atea zabaltu nien bi gazteei. Bizitzaren krabelinak eskutan, korrika alde  
egin zuten Seminariotik. Ni han gelditu nintzen Ilustrazioaren esentzien zaindari, har-  
lauzaren azpian... Eta begiak ireki nituenean dena ilun zegoen.





Mari Joxe Azurtza  
Bosgarren taldea  
2. saria

*Ipuina*

*Balantzia*  
20

*Birazu bihotzeko maratila*





## *Birazu bihotzeko maratila*

Kandelapean ari zaio idazten Landerri. Argi-ilun jokoan. Tximista batek jo eta argindarra joan zaie etxean duela zenbait. Hark oparitutako argimutilla itzal kulunkari dabilkio paper gain horretan. Ez du asko ikusten, baina idatzi nahi dio. Bihotz irudia egin du airean hatzekin borobil, hark irakatsi zion eran. Horman islatu da bihotzaren itzala, kandelaren argi apalaren eremuan. *“Bihotza, laztana... ai, zer erro-mantikoa den dena!”* atera zaio.

Gelan Landerren kutsua barreiatu du argizariak. Hark erabiltzen duen kolonia tanta batzuekin zipriztinduta eman al zion argimutilla? Begiak itxi eta bere usaina gogoratu du, bizkar eta paparrean krema jartzen aritu izan zaionetan bezala, gihar-ileetan barrena mantso. Azalean laztanka aritutako oroitzapenekin kili-kili berpiztu zaizkio bere hatz mamiak. Igurtzi egin ditu hatz mami denak. Zein atsegina.

Burrunbunbun! Trumoia. Ikaraz suspertu du trumoi-hotsak. *“A zer ekaitza dugun gainean”*. Urrunean ahitu da burrunba zurrumurrua. Landerrek beretzat konposatu zuen rap abestia entzun daiteke gelan, suabe. Belarria jarri eta zein zatitan doan erreparatu du: *“Maiteminak narama zure bila, bihotzak du agente-makila”*. Abesteari ekin dio, buzur dakizki hitzak: *“zu zaitut nire zorion-ezkila, hotza arintzen didan subila; ni nauzu jolas-kirkila, torizu nire hauskortasun isila, ez da opari zirtzila, ezagutu nahi zaitut neskatila.”* Pun-pun-pun, pun-pun-purun, bateria. Trumoiak jo du bat-batean, aldi berean. Hara! Akonpainamendu egokiagorik ezin. *“Biratu niretzat zure bihotzeko maratila, ire-*

kidazu irriken leihatila, erakutsi emozio-iskanbila, bizitza-urraduren maspila". Pun-pun-pun, pun-pun-purun, perkusioa. Zein ahots galaia. Zenbateko esanahia duen beretzat guzti horrek. Irribarre egin du, musika jaulkitzen duen mugikorra laztandu ahala. "Erromantiko hutsa haiz Lander. Ai! " hasperen egin du.

*"Lander maitea, jira eta bira ibili ginen lehengoan hondartzan: bi kroketa; elkar mauka-mauka irensteko gogoberoz eta ametsez beteta". Ez, hori ez dio idatzi nahi. Beno, bai, baina ez hori bera, antzeko zerbait idatzi nahi dio, baina era samurragoan, goxoagoan. Papera mor-doildu du eta berri bat hartu du. "Begirada zerurantz zenuen, luze etzanda ahozkoa, besoak garondoan, ni zuri begira-begira". Totelka hasi zela hizketan du gogoan. Ez du hori idatzi nahi ere. "Nire itsu maitea:" ekin dio orri berri batean. Baina zergatik aipatu behar ote du bere ezintasuna aurren-aurrea? Lander mela-mela eta bere bularrean behera txirrist itsas tanta bat imajinatu du. Zer gustagarria. Maitasun eskutitz bat idaztea zergatik ote den horren zaila bere buruari galdetu bitartean, errukarri sentitu eta barreari eman dio. Hobe du bere trakeastasuna umorez hartzea!*

Bihotzak hitz egin dezan itxoitea izango du onena. Argizari perfumea sumatzen du airean, "Birazu bihotzeko maratila" abestia atzealdean. Idazteari lotu zaio. "Sumendi nuen burmuina, zirimola emozioak eta bizkarra minbera. Lan gehiegi egin nuen zure izebaren mandioan egun hartan eta ondoren, denbora gehiegi eman nuen ikasten. Zure hatz dantzariak nire bizkarrean zabuka hasi ziren lasaitzearren, masajea ematen bals dotorean eta orduan, zart, "zure sekretu denak jakin nahi ditut eta nireak kontatu" xuxurlatu zenidan. Baietz esan nizun lozorroan." Argimutlaren sugar ahulek irribarrea luzatu diote horman islatua: ai, maitemina. "Inork ez zekizkien beldurak, inori kontatu gabekoak eta lotsaz bizitakoak kontatu dizkizut ordutik. Eta zuk niri. Honela konkistatu nauzu, bihotzeko maratila biratu eta pixkanaka barrurago sartuz. Patxadaz, tentuz, baimena eskatuz aldiro eta zure barrua agertuz nire aurrean. Lander, hau komeria duguna! Ez dakit zu itsua izanik sekula onartuko ote zaituzten nirean, ezta ni beltza naizelako zurean". Idaztez gelditu da. Ontzat eman du zati hori. Abestian erreparatu du berriz, atzealdean errepika duena: "Labea eta opila, enborra eta okila, sabela eta zila, hilkutxa eta hila, bikote adibideak ditut mila, zurekin osatu nahi dut ohean maitasun kiribila, ez naiz desio kontuan hotzila, baina lehendabizi neskaitila, birazu niretzat zure bihotzeko maratila."

Ez dauka Braillean idazteko inprimagailua, bere eskumenetik kanpo dago; horren orde, irakurri egiten dizkio eskuz idatzitako eskutitzak eta mugikorrekin bidali. Hobetsi duen

zattia irakurri dio lehenbizi eta gero, bertsolarien antzera, bat-batekoan jarraitu du grabaketan. *"Lander laztana: maite zaitut eta min dut, ingurukoek jarriko dizkiguten mugek ez ote duten gure maitasuna itoko minez naiz. Bata nire kolorea dela eta bestea, zure ikusmen muga. Eta zer esan, maite zaitudala ozen besterik. Muga eta guzti zu zakizkidala bizitzan merezi duena ikustera naramana"*. Hau paradoxa, itsua ikusmena ematen *"ustez"* ikusten duenari.

Trumoiak jo du, beste behin. *"Orain trumoi, Lander"*. Etxean duen nahaspilarekin lotu du burrunba. *"Eta hori bera nabari dut nire familian, trumoi. Denek ukatu didate agurra, aítak izan ezik: deabrua duzula sinistuta daude edota arbasoen bekatua haragitu zaizula, zure itsutasunean. Sineskeriak. Baina edozer esanagatik erauzi ezin ditzakedanak. Akituta nago"*. Gelditu egin du grabaketa. Ez du atsekabez jositako mezua bidali nahi. *"Horren egoera erromantikoa da hauxe eta ni nire penak azaleratzen"* pentsatu du. Erantsi behar duen ideia bat etorri zaio halere eta grabatzeari berrekin dio. *"Zure etxean nire azal kolorea da ezinegon sortzen duena. Ez zaituzte andre beltz batekin nahi. Hau bai komeria. Dena da komeria eta tragikomedia"*. Grabaketa gelditu du oster. Murrika egin du marmar. Zurrumurruen iluntasunean Lander du artizarra. Konbikzio argia du Landerrekin bizitzea dela bizitzak eskain diezaiokeen onena orain eta hemen. Zergatik utzi behar ote du beskeen eskuetan bere bidea. Grabaketa biztu du.

*"Txutxu-mutxu ilunak ditugu inguruan eta kaltera eragiten didate. Zuk hobeto hartzen duzu hau dena, neutraltasunez, 'oi, gizajoa' entzun izan duzu antza txikitatik. Gaizto-jendea gaizki daramat nik, berriz. Zuk, entzunak entzun, maite nauzula eta aurrera egiteko ziurtasuna erakutsi didazu. Egin dezagun aurrera bada, nik konbikzioa lagun baitut. Zu zara nire konfidente, nire laguna, nire bihotzeko sofán sekretu kontari nahi dudana, eta baita nire sexu laguna izatea nahi dudana ere. Bai esaten dizut, zurekin nahi dut, aurrerantzeko egun denetan"*. Isildu egin da. Ez al da potoloegia esan duena? Aurrerantzeko egun denetan? Beno, eta zergatik ez? *"Etorkizunak zer ekarriko dion jakin duenik ez da jaino munduan oraindaino"* egia borobila esanarazi dio bere buruari *"eta zergatik ez ote dugu elkarrekin asmatuko?"* bota dio galdera segidan argimutilari, argi-ilunetan entzuten ari zaiola dirudien beso-ugariko kandelari.

Pertsonon erabakiek gizartea alda dezaketela jabetu da: hona, bada, haien erabakia. Aurpegia argitu zaio eta hizketari berrekin dio, mugikorrek aplikazioan grabatuz. *"Biek badugu nahiko dohain bizitzan aurrera egiteko, Lander. Jainkoak lagunduko digu, eta gure asmatu nahiak"* erantsi eta grabaketa bidali dio Landerri.

Zer zaila den inguruko presioei aurre egitea, pentsatu du Sitik. Konbikzioa izanagatik denen ahotan egoteak zenbateko ezinegona sortarazten dion ohartu da. Askotan, okerrak gertukoenak izan litezke, gainera: presio handiena egin dezaketenak norberaren ahultasunak ezagutu eta profitatzen dituztenak, hain zuzen. Nola uler liteke, bestela, Siti Donostian jaioa izatea eta oraindik ere bere sendiaren zainetan barrena itsuen aurkako sineskeriak horren indartsu irautea; edota, alderantziz, nola izan liteke Siti donostiar eran hezia egon eta bertakoen antzera bizi eta jokatuagatik, haren azal koloreak bat baino gehiago itsu dezan, haien zuhertasuna bera itsutuz beste ezeri erreparatu gabe.

Argimutilaren argizaria beheratzen ari da pixkanaka, argindarra ez zaie itzuli oraindik. Grabatu duen mezua USB batean gorde du: Landerri bidalitako mezu denak ditu surf-taularen tankera duen USB memorian. Haien ametsa, inoiz, furgoneta bat hartu eta Kantauri itsasoko hondartza denetan surfean aritzea da, eta hori gogoan oparitu zion USB berezi hori Landerrek Sitiri.

Eskuz idatzi duen eskutitza eta surf-taula itxurako USB memoria kutxa batean sartu ditu. Kutxari muin eman eta jaso egin du. Hori du bere jabetzarik preziatuena: bizitza bere hitzetan kontatua. Landerrekin duen maitasun-erromesbidea du bertan. Hurrengo belaunaldiek ere jakin bezate maitasunean oinarritu zela haien munduratzeara, bera ziur baita Landerrekin amaituko duela ezkila artean, ohantzean eta haur artean. Sineskeriak sineskeria. Eta haien haurrek jakin bezate sortze unetik bertatik maitasun, konbikzio eta poz uneen sorkari direla, nortasun handikoak izan beharko baitute aita itsua eta ama beltza duten haurrok. *“Ni ere banaiz, noraino dihoakit irudimena”* egin dio errieta txikia bere buruari, *“oraindik ere hastapenean gara eta. Goza dezadan urrats bakoitza.”*

Ilunpetan gelditu da, kandelak ahitu dira, trumoiak aldendu. Musika itzali du. Lurrin gozoa da gelan, *“erromantiko hutsa haiz, Lander”*. Ohean bota du bere burua, luze. Itxaropentsu.

Eta Landerren abestia rapean abesten hasi da, *“ai, nire kirkila; ai, nire kirkila!”*. Osoa daki buruz: *“Maiteminak nakar estu zure bila, bihotzak du zindo aginte-makila, dilinka ari zait zorion-ezkila, “dalan!” astun sorginkeria isila; lilura, miresmena, aztoramen pila.*

*Hots-hats zaitut, hau ezuste zurbila. Hemen gauzkazu, dardarka, bai ni, bai nire amets-bur-buila; zurrutean dagit arnas, eta ordainetan darabilt emozio nahaspila. Bai. Ezagutu nahi zaitut, neskaita, birazu niretzat bihotz-maratila.*

*Nekaezin beti mokoka okila, beha orduko ihes doa kiskila. Haren abiaduran azkar dut li-zunkeriaz ene buru abila; bor-bor, prest dut soina, naturaren abaila. Irrits dut gure gorputzen kiribila, ez nauzu desio kontuan hotzila, zure eskutan nadin jolas kirkila, taupa, tenk, zut... hau dut irrika sotila, dasta dezagun sentsazio-botila, baina lehendabizi, maite-mutila, irekizu sekretuen kutxatila.*

*Nork bere sena biluztea da zaila, ez da lan makala, ez da lan zirtzila, bestetaratzea ustezko izpila. Hor ezagutu nahi zaitut neskatila.*

*Kontadazu emozio-iskanbila, zabal bizitza-urraduren maspila, irekizu arranguren leihatila, jariozu sekretu baten itzila, agertzazu lotsaizun baten pipila, ezer ez da niretzat kontu purtzila, jada jarri nau ikarak hori-lila: biok daramagu arrastaka izu-orgatila.*

*Labea eta opila, arto-irin eta morokila, sabela eta zila, hilkutxa eta hila... bikote adibideak ditut mila, gure artean hala gerta dadila, bata lasto eta bestea azpila, ilunpe hotzetan elkarren subila.*

*Bizi daigun fantasiazko loraila, eta gaizki ulertzeen izotzila, ala neke idorraren agorrila, mais-tasun ontzian sendo behar gila, iritsiko bada emankor uztaila.*

*Horregatik, dizut eskatzen mutila, zabalik utzi bihotzeko sarraila, eta jira konfiantza-maratila, barrura noa poliki, zure bila."*

Sitik begiak itxi ditu. Gutxi falta da bere gelakidea etor dadin. Gutxitan izaten du gelan bakarrik egoteko parada eta tarte horiek biziki aprobeztatzen ditu. Amak eta amonak etxetik bota zutenetik, Landerren izeba batek eman dio ostatu. Eta bertatik doa uni-bertsitatera eta ondoren lortu berri duen ordukako lanera. Ordainetan, Landerren izebaren seme-alabak zaintzen ditu noizean behin eta alaba zaharrenarekin egiten du lo, baino giroa polita da etxean eta asko ari da ikasten. Lander zenbateraino maite duen bereziki.

Eguzki-printzek argitu dute gela. Ekaitza joana da eta oraindik ez da gaua heldu. Argimutula jaso eta leihoa ireki du. "Siti, lagunduko didazu Fisikako etxeko lanak egiten?" entzun du bizkarrean. Landerren lehengusina, Lore, gelakidea dena. "Zer dugu gaurkoan? Fisika kuantikoa?" "Ez, ez, kar-kar, hori ez dut uste ikasturteko gaia denik. Zurea bai?"

Eta Sitik irribarre egin dio buruarekin, "bai, nirea bai, aurtengo gogorrena!". Eta Lorek miresmen aurpegiz begiratu dio, eta berak Landerri horrela begiratzen diola kon-turatu da eta barreari ekin dio. "Fisika ikasi beharko duzu zuk ere nik bezala, Lore. Ez

dago hori bezalakorik munduan...” erantzun dio. Eta biak hasi dira gogoz barrez, Sitiren umore onak kutsatuta.

*“Beno, bai, badago hori bezalakorik... maitemintzea eta besteak erantzutea. Nik bai zortea, kirkila, ene kirkila”* esan du bere kolkorako Sitik konfiantzaz.

“Siti, enamoratura zaudela! Bakarrik ari zara hizketan...” esan dio Lorek, eta Sitik begiekin baietz esan dio. “Lore, ez dago Landerrek adina ikusten duen pertsonarik” azaldu dio erraieratik, eta Lorek “nik gehiago ikusten duen pertsona mordoa aurkeztuko dizut ba” erantzun dio agudo. Zer bestela! Eta berriz hasi dira bi emakume gazteak barrez, eguzki-printzen onespenean.

“Kar-kar, ondo da, esadazu zer duzun Fisikan...”



June Arando  
Bosgarren taldea  
3. saria

*Ipuina*

*Balantzia*  
20

*Bi hitz*





*Bi hitz*

–Belarri zuloetan barrena sartu zitzaizkidan bi hitz horiek nire bihotzaren taupadak gero eta azkarrago sentitzen nituen bitartean; eskuetan izerdia, arnas falta eta aurpegia guztiz zuri nituen eta segundoak luzeegi egiten ari zitzaizkidan... Hau da gogoratzeko dudak bakarra –esan dit nire paziente berriak bere lehenengo saioan.

Hasieran droga-mendekotasun kasu bat dela pentsatu dut, baina drogen froga egin eta gero osasuntsu dagoela konturatzeko, shock post-traumatiko baten kasu bat dela da nire hipotesi nagusia. Gaur egun ikusten ari den dena bere buruaren barnean soilik dago, hau da, zerbait hain gogorra pasatu zutzaion orain oso haluzinazio erreala dituela; ezinezkoa da entzun zituen bi hitz horiek orain leku guztietan azaltzea: liburuetan, kaleko horma-irudietan, nire sorbaldako tatuajeetan... ez. Shock post-traumatiko bat ematen duen arren, bere begietan zerbait ezberdina ikusten dut. Ez dakit zer: egia, etsipena, beldurra... Egun luzea izan dut eta ez dut burua guztiz argi. Dena dela ere, bere kasuari lehentasuna emango diodala uste dut. Zerbait honen atzetik zeozer benetan bitxia dagoela esaten dit, nahiz eta kanpotik erotuta dagoela eman. Nire pazientearen lehenengo saioa amaitzeko agurtu egin dut, atetik korrika bizian ateratzen zen bitartean:

–Asteartera arte, Chiara.

Egunak nahiko azkar pasa eta gero asteartea da berriz, eta hiru pazienteekin egon ondoren, hainbeste itxaron dudak pertsona heldu da; berandu, baina hemen dago, eta bere ka-

suan asko sakontzeko asmoa daukat gaur. Burua txostenetik altxatzean, begiak bere aurpegian finkatu zaizkit nahi gabe eta bere egoera ez dela batere ona ohartu naiz; begi-zuloak, begi gorriak, itxura eskasa... Harritu egin nau. Nik ezer galdetu baino lehen, Chiara hasi da hizketan eta bere aste gogorra kontatu dit: hiru egun lo egin gabe, goserik ez, antsietate handia... Argi gelditu zait ez duela aste ona izan, baina ez badit bere iraganeko kontu guzti hura azaltzen, ezingo diot lagundu; beraz, bere konfiantza osoa lortu behar dut bere korapilo latz hori askatzeko. Zuzenean galdetu behar izan diot oraindik bi hitz horiek ikusten dituen edo egoera hobetu den. Hitz horiek ahoskatu ditudan momentuan, dardarka, izerditan... hitz horiek behin eta berriz errepikatzen hasi da, alde guztietara begiratzu eta nire atzean zerbait ikaragarria adierazi nahiko balu bezala. Segidan, konortegabeturik lurra jo du eta ni, bera bezain ikaraturik, zer egin jakin gabe gelditu naiz, paralizatuta; baina, konturatu naizenezako begiak zabaldu, zutitu, eta nire klinikatik alde egin du. Ordu erdi besterik ez da egon nirekin eta nire bizitzan inoiz ikusi ez ditudan mila gauza ikusi ditut; eta hori gutxi balitz, nire psikologiako ikasketa guztiek ez dutela ezertarako balio ematen du orain. Ez dakit zer egin berarekin, kasu hau argitzea lortu behar dut, nola edo hala.

Beste aste bat igaro da, lanean bezainbeste ordu etxean pasatuta eta lagunekin gainerako orduak. Nahi edo ez, astearte goiza da eta gaur arratsaldean hainbesteko buruhaustea ematen didan neskarekin daukat hitzordua; bai, Chiararekin. Gaurko goiza Chiararen kasuari buruz ikertzeko hartu behar dut. Interneten pare bat kasu azaltzen dira nire pazienteak bezala gauza bera toki guztietan ikusten dutenena, baina bi kasuak zenbaki konkretu batzuei buruzkoak eta erritu satanikoekin lotutakoak dira, eta ez du ematen Chiararen egoera denik.

Internet barneko sare beltzenetan nabigatu ondoren baliagarria izan daitekeen zerbait aurkitu dut: sekta bat. Sektetan askotan buru-jateak egiten dituzte, trauma handi bat eragin dezakete eta horrekin batera haluzinazioak... Ez dakit, ez nago seguru. Sekta batean parte hartzearen ondorioa izan daiteke, baina, hala bada, bere benetako istorioak ez du zerikusirik kontatu zidanarekin, eta niri argi asko utzi zidan gogoratzen zuen dena. Beraz, nire zentzuzko hipotesi bakarra desagertu egin da berriz ere. Arratsaldeko hitzordua ongi baliatu beharko dut ahal dudan informazio dena ateratzeko, kasu honek ni logura gabe uzteko gogoia duela ematen du-eta.

Neure burua edozer gauza ikusteko mentalki prestatu ondoren, Chiara heldu da aurreko astean zuen aurpegi berdinarekin, guztiz itzalita. Oraingoan neuk galdetu behar

izan diot zer moduz joan den bere astea eta ez dit ezer berririk esan, gauza txiki bat izan ezik; berarentzat hain garrantzitsuak diren bi hitz horiek. Ezer gertatuko ez balitz bezala esan ditu eta nik ez dakit hori positiboa edo negatiboa den; baina momentuz ez denez ezer bitxia gertatu, positibotzat hartu dut. Arratsaldea azkar igaro zait, aurreko asteetan ez bezala; betiko moduan bere astea nola joan den komentatu dugu, eta oraingoan pixka bat gehiago zabaldu da eta bere iraganeko gauza ugari kontatu dizkit. Bere gurasoek ardo-enpresa bat dute eta dirudunak dira betidanik; txikitatik bere ikasketak arrakastatsuak izan dira; Ingeniaritza Biomedikoko gradua dauka; bost urtez bikotea izan du... Funtsean, bere bizitza hobeezina zen eta egun batetik bestera pikutara joan zaio dena. Eta hori dena bi hitz entzuteagatik? Nik ez diet ezer arraroa sumatzen bi hitz horiei, baina zerbait eduki beharko dute Chiararen bizitza guztiz izorratzeko. Orain, bion arteko konfiantza handitzen doan heinean, agian egun hartan gertatutakoari buruz galdetzeko edo bi hitz horiek sentiarazten diotena galdetzeko unea da; baina datorren astean izan beharko da, gaurko saioa bukatu da-eta. Lehenengo aldia da orain arte elkarri pertsona normalen moduan agurtzen dioguna, pare bat muxu eta “Datorren asteartera arte”; uste dut orain ari naizela benetako Chiara ezagutzen, eta hau gehiago gustatzen zait.

Laugarren astea heldu da nire paziente berezienaren kasua aztertzen, asteartearen berri. Beldurra eta urduritasuna desagertu dira eta Chiararen saioak gero eta gogo handiagoz jasotzen ditudala uste dut. Gaurkoan urrats handi bat emateko asmoa daukat eta espero dut Chiarak hobera egin izana aurreko astetik. Niri, egia esanda, aste hau nahiko gogorra egin zait; lo egiteko arazoak, gorputz guztiko mina... Ezer larrik ez, baina oso desatsegina. Hemezortzi minutu zehatz itxaron eta gero, Chiara sartu da atetik eta argi utzi dit puntualtasuna ez dela bere indargunea. Baina bere puntualtasunean pentsatzeko segundo bat hartu eta gero, aho zabalik gelditu naiz orain dela astebete fisikoki utzita eta nahiko eskas ikusten nuen neskarekin; oraingoan ez dakit zein sartu den atetik, Chiara edo aldizkarietako super-modelo bat. Harritu egin nau bere itxurak eta egiazki poztu nau horrela ikusteak. Nirekin izandako saioak ondorio onuragarriak ekarri dizkiola ikusten da, baina oraindik ez ditut argitu buruan ditudan zalantzak eta ez dut lortu gertatu zaionaren diagnostiko bat egitea. Beraz, hau amaitzeko pazientzia handia beharko dut. Pazientearen txostena aurkitu bitartean Chiararen inguruan nahikoa pentsatu eta gero, gaurko saioari hasiera eman diogu asteroko gisan: bere astea ko-

mentatuz. Aurpegian irribarre zabal batekin begiratzen didan bitartean azaldu dit bere astea: lo primeran egin du, denetarik jan du, lana aurkitzen hasi da... Zer gertatu zaio Chiara goibel hari? Aste batetik bestera gaitz guztiak desagertu zaizkio? Neska honek nire burua nahastu besterik ez du egiten astero. Lanetik kanpora deskonektatzen saiatzen banaiz ere, kasu honek buruko min gehiegi ematen dizkit. Bere zazpi egun zoragarriei buruz hitz egin ondoren, harira joatea erabaki dut eta dena aldrebestu zitzaion egun hartan gertatu zena xehetasun guztiekin azaltzeko eskatu diot; berak baietz esan dit arazorik gabe, eta ez diot inongo urduritasunik sumatu dena kontatzen zihoan bitartean. Orain arte esan ez didan datu garrantzitsu bat falta da istorioan bi hitzak, erre-akzioak eta dena lotu ahal izateko: nork. Nork esan zizkion bi hitz horiek eta zergatik? Zorionez informazio hori gaur lortu ahal izan dut. Chiarak dioenez, azkenengo asteotan pentsatzeko denbora izan du eta, gaiari buelta ugari eman ondoren, zerbait gogoratzea lortu du. Oroitzapen lauso horrekin zeinek esan zizkion bi hitz horiek ondoriozta dezaket. Dena hasi zen egun hartan, Chiara liburu-denda batean zegoen liburu batzuk aukeratzen, pare bat liburu erromantiko hain zuzen ere, eta liburuak ordaintzerakoan, dendako saltzaileak Chiarari liburuak eskura ematearekin batera, bi hitz horiek bota zizkion. Harira ez zihoazen bi hitz horiek esan eta neskaren bizia hondatu zuen segundo gutxi batzuetan. Egia esan, beste zerbait espero nuen; zentzu gehiago izango zuen azalpen bat. Orain ikusten dudan erremedio bakarra denda hartara joatea eta saltzailearekin hitz egitea da, detektibe pribatu gisan.

Osteguna, goizeko hamarrek, euria eta iluntasuna dira nagusi kalean, eta ni aursardiaz jantzi behar izan naiz liburu-denda hartara joan eta saltzailearen azalpenak entzuteko; gogo handirik ez dut, baina beharrezkoa dut kasu hau behingoz itxi ahal izateko, ordua da-eta. Liburu-denda kalezulo baten bukaeran dagoela esan zidan Chiarak, eta urrutian ikustea lortu dudanean nahiko erakargarria eta guztiz ohikoa iruditu zait; pixka bat zaharra, baina normala da aspaldiko liburuak saltzen dituen denda batek itxura hori izatea. Itxurarengatik gehiegi epaitu gabe, sartzearabaki dut nire pazienteak dioen andre horren bila, baina liburu-dendan sartu naizen momentuan gizon adintsu bat soilik ikusi dut denda osoan. Gizonari galdetu diot ea andre batek dendan lan egiten duen. Gizona apur bat urduri jarri den arren, galdetzen diodan guztiari egia osoa esanez erantzungo didala zin egin dit. Ordu erdiko hizketaldian, dendako saltzaileak esan dit duela hiru hilabete lana utzi zuela, arazo psikologiko larriengatik: an-

tsetate, ikara krisiak, beldur iraunkorra... Eta garrantzitsuena, bi hitz leku guztietan ikusten zituela aditzera eman dit, dendan lan egin zuen azkenengo egunetan hainbat liburutan egin zituen zirriborroak erakutsiz; hain zuzen ere, liburuetan egin zituen zirriborroetan bi hitzak indar edo amorru handiz idatzita azaltzen ziren. Bestalde, orain dela hiru aste berarekin egon zela eta egoera onean zegoela esan dit. Probetxuzko el-karrizketa hori izan eta gero, eskerrak eman dizkiot eta dendatik irten naiz erabat ase lortutako erantzunekin.

Ikusi dudanez bi hitz horiek lotura zuzena daukate bi pertsonen pasatu duten egoera zailarekin eta biak eboluzionatu dute gutxi gorabehera erritmo berean; hau da, saltzaileak hilabete bat egoera horri aurre egiten egon ondoren Chiararekin topaketa izan zuen eta hiru astetara bere egoera dezente hobetu zela esan du gizonak. Chiarak eboluzio antzerakoa izan du nirekin saioak hasi zituenetik. Oraindik ere ez dut zeharo ulertzen egoera. Ez dut uste, ematen duen bezala, hau kate bat denik eta denbora gutxi barru beste pertsona bat horrelako egoeran aurkituko denik. Baina gaur, hainbeste zirrara sentitu ondoren, buruak eztanda egin behar dit eta hobe izango dut etxera joan eta dutxa bero bat hartzea pentsamenduak argitzeko. Gainera, bi hitz horiei nazka hartu diedala uste dut, hainbeste aldiz entzun ostean.

Ostegun hau barraskiloen lasterketa bat baino astiroago igaro ondoren, nire “relax” momentua heldu da: musika thailandiarra, bainu bero bat...; egun osoan sekulako irrikarekin itxaron dudana momentua. Takoidun zapatak kendu eta oinetan masaje bat eman diot neure buruari tentsioak askatzeko; segidan, larrugorritu naiz ur berotan sartu ahal izateko, eta ispilu aurrean nire gorputz biluzia begiratzen gelditu naiz bainuontzia bete bitartean. Sorbaldako tatuajea begira geratu naiz. Amonaren omenez hitz baztuk tatuatu nituen, sorbaldaren aurreko zatian hain zuzen ere. Oraingoan nire azaleko hitzak begitatzean, ez dut amona oroitu, antzeko ezer ere ez; bi hitz irakurri ditut, eta orain buru barruko ahotsak ez dit besterik esaten, bi hitz soilik.





Aroa Elortza  
Bosgarren taldea  
1. saria

*Poesia*

*Balantzia*  
20

*Esan nahiak*





## Esan nahiak

Lo hartu ezinik ari zela  
Ekin zion idazteari.  
Loak hartzen ez zuen gauetan  
Izarrak begiratzea zuen gustuko  
Baina ez,  
Egun hartan  
ez zen izarrik.

Iluntasuna zen nagusi.  
Eta orduan hasi zen jabetzen  
Hitzen  
Garrantziaz,  
Hizki  
Bakoitzaren esanahiaz,  
Ez baita berdina

### Esanahia

Eta

**Esan nahi.**

Hitzez eta hizkien ordenaz  
Hasi zen jabetzen  
Eta zein ederrak  
Eta txikiak diren  
Aldi berean  
Pozten gaituztenak.

**Pozten** gaituen horrek  
**Hozten** gaituen arren askotan.  
Izan ere,  
**Hotzak** beldurtzen gaitu,  
Edo bere atzetik entzuten den  
**Hotsak** agian.

Isiltasunean entzuten baita

### Sarri

Nahi ez duguna **jarri**.

Isiltasunean entzuten baita

### Askotan,

Jarri nahi ez duguna **ahotan**.

**Esaten** ausartzen ez garenak,

**Edaten** amaituz penak.

Eta denak omen du garrantzia

Izan **su** edo **zu**

Eta sortzen duten **sugarrrak** edo **zu garrrak**.

Gainera, **sagarrrak** bagina bezala

Bizi gara dezentetan,

Zuhaitzean

Zain,

**Ikusiz** zenbait lur eta gain.

Eta **ikasiz** gertukoa bikain.

Hertuko omen da **mina**  
Eta **baretu maina**,  
Tristura **barretu**,  
Hori baita **bizipoza**,  
Tristurak eta pozak partekatzea.  
Eta askotan **bizizopa** honetan,  
Non dena hizkiz nahastuz betetako **salda** den  
Zilegi **al da** jarraitzea?

Jarraitu, ez eman **amore**,  
Bilatu poza, egizu **umore**.  
**Barrea** delako zorientasun iturri,  
Egizu, **barea** sartu arte,  
Negar **malkoak** erori arte,  
Alboko **mahaikoak** isiltzeko **eskatu** arte.  
Une horretan,  
Bai, orduantxe,  
**Askatu** beharrekoak irtengo dira.  
**Askatu** hegoak eta egin hegan,  
Txoria baikinan  
Urrunean bilatu arte gustuko **adarra**  
Eta paratu bertan.  
Jabetu zeinen **ederra** izango den itzulera,  
**Biharko** eguna,  
Asetuz **beharko** duguna  
Izanik bihotzez **egina**, laguna.

Hegan eginik ikus daiteke zerutik  
**Lea-Artibai** edota Gaztelugatxe,  
Arnasa hartu eta deskantsatuz **loa hartu bai**.  
Koloreak ere ez dira ongi bereizten zerutik  
Kolore **zuria** bihurtzen baita orlegi,  
Eta **zurea** den etxeak beste batena dirudi.  
Belar **soro** luzeak ere ikusten dira,  
Baita zenbait haur **zoro jolasean**,  
Eta alboan gurasoak **solasean**.  
**Behatzak** ez dira ikusten hemendik,  
Bai, ordea, **baratzak**,  
Ez dira entzuten taupadak, **bihotzak**  
Bai ingurukoen zaratak, **bi** haurren **hotsak**.  
Ezberdina dirudi **egiak** altueratik begiratuta,  
**Begiak** beste ikuspegi bat eskainiko balu be-  
zala.

Hala ere, ikusten duguna  
Maiz  
Nahi duguna izaten da  
**Nahi** eta ezinaren arteko balantza,  
**Bai** eta ezaren arteko oreka.  
Hala ere, sentitzeko duguna  
Apika  
Norbaitek **osten** digula dirudi, zatika  
Neguak **hozten** duen lez, bihotz eta birika.

Baina bat-batean iristen da **udaberria**,  
Eta **ur-berria**,  
Lore berriak **sortzen** dira larretan  
Eta haize epela **sartzen** da etxeetan.  
Kolore berriak agertzen dira,  
Gaurik ilunenak ere koloreztatzeko asmoz.

Garai horretan  
Amestu egun argiz,  
**Izarrek** iluntasuna argitu arte,  
**Izarek** loa gailendu arte.  
Ordurako jada,  
**Ohartuko** zara  
Ez dela ezinezkoa,  
**Onartuko** duzu  
Irabazi duzula,  
Azkenean,  
Horrenbesteko merezitakoa,  
Horrenbesteko itxarondakoa,  
Askatasuna.





Ainhoa Pardina  
Bosgarren taldea  
2. saria

*Poesia*

*Balantzia*  
20

*Itxialdiak eragindakoak*



## *Itxialdiak eragindakoak*

POZA:

POlita da poza,

ZAbuaren kulunka bezalakoa.

POzgarri da ZAbaltzea poza.

PO → ZA:

Podiumaren ZApata,

Pozoiaren ZAuria,

hori da POLitikaren ZAldia.

PO → ZA:

PObrearen urrezko ZAkua,

POLtsa barruko ZAparrada,

POsitiboaren ZAlaparta.

PO → ZA:

POspolina ZAra!

POlea ZAmarentzat bezalakoa:

POderioa eta ZAintza.

POZA:

POstal polit bat bezalakoa edo

ZAkurtxo suabea bezalakoa.

POZA da POesiaren ZArata!

## DENBORA

Denboraren ibaiaren jariora  
bizkortuz doa bere abiadura.  
Lehen ibiltzen zen saltoka  
orain, jada, egin du bere saltoa.

Denbora korrika doa,  
dauka Usain Bolti irabazteko asmoa.  
Erlojuaren orratzak dira suzkoak,  
mugitzen dira abiadura osoan.

Denboraren orratzak luzatu du zangoa  
baina nik jaso dut nire zangoen ukoa.  
Nire gorputzari gaztetan iritsi zaio zahartzaroa  
baina nire buruan denbora gelditu dago luzaroan.

Asperdurak eta tristurak elkarri eman diote bostekoa,  
harreman luzea izango delakoan euren artekoa.  
saltoka daukat emozioen saltsa zorua...  
horrela jarraituz bihurtuko naiz eroa.

Jada hilabetetik gora etxeko zuloan  
ekiditeko gaixotasunaren erasoak,  
ahaztuta itxialdiaren eragin ez sanoak.  
Goraka doa konfinamendua bukatzeko gogoa.



SAMINAREN HOTSA

Z d  
 a e  
 h n  
 a b  
 r o  
 m r  
 i a  
 n k  
 a e  
 r f  
 e n a  
 n g  
 s i  
 a n  
 m i  
 i n  
 a

N e  
 e z  
 g  
 a d  
 r a  
 r a  
 a e  
 r z  
 e k  
 n u  
 i a  
 m t  
 i z  
 n e  
 a k  
 o  
 f  
 i  
 n  
 a

Debekatu de gure hotsa  
 ahotza, aho-hotza.  
 Gure hotsa bihurtuz izotza ...  
 izotza bezain hotza.

Zaharminaren samina  
 eta ahotsaren aho-hotza.  
 Deuseztatzeko mihinaren mina  
 ozen askatu zure saminarekin hotza.

**BESARKADAK**

Besarkatzeko postura,  
bihotzean azkura.  
Nire besoak zuretzat aingura.

Nire gurarien gura,  
maitasunaren itxura.  
Ura bezalakoa da hura.

Horrela sendatzen da tristura  
eta ekidin tortura,  
isuriaz maitasun erreka ura,  
jarioak emanaz altura.

Milaka emango nituzke gustura  
baina tamalez bihurtu da fikziozko figura.  
Urteak itxaron beharrak sortzen dit negargura.  
Guztiak dauka egoerarekin lotura.



Aritz Alusitza  
Bosgarren taldea  
3. saria

*Poesia*

*Balantziana*  
20

*Joan etorriak*



## Joan etorrria

### Erori baginen ere

Erori baginen ere,  
ez errurik bota denborari.  
Erori baginen ere,  
dantzatu genion iraganari.

Denborak sendatzen omen du dena,  
urteak, leundu, lausotu.  
Ezinezko zena, dena udaberriak loratu du dena.

Negu ilun, ilunetan  
argitu gara.  
Eta argitu ondoren,  
dena piztuko da.

Zurrunbiloan barrena,  
jira bueltaka.  
Noraezean, galduta,  
kale kantoian.

Ez, denborak ez gaitu,  
aldenduko inoiz.  
Paper txuri honetan,  
margotu gaitezen.

Gaur parez pare elkar,  
nork esango luke, egia ote?  
Baina atzoko ahantzi nahi dut,  
urtaro berri bat bizi.

Udaberriak loratu ondoren,  
izotzak hoztuko nau.  
Baina argi izpiak or dirau,  
zenbat egun, zenbat gau.

### Itzuliko gara

Itzuliko gara gure auzo bakartira,  
gozatuko dugu, lehen egin ez genuen eran.  
Non geratu zen esperantzaren argi bizia,  
bizimodu hartan eten genuen haria.

*Eta itzuliko gara beriberi,  
iraganaren horma eraikiz.*

*Eta itzuliko gara beriberi,  
iragana atzean utziz.*

Ez esan non izan zaren azken urte hontan,  
zein hondartza, klima, lehor edo umeletan.  
Ihes egin zenuen, hemendik urruti,  
denbora geratu balitz bezala, zu ta ni.

### Tatuatutako izarrak

Iluntasunean,  
zuen izar disdiren,  
malkoak izozten dituzte.  
Ta malkoak,  
tatuatutako izarrak,  
ordezkatzen dituzte.

*Aurrera eta atzera,  
atzera eta aurrera,  
gora eta behera,  
gaur eta bihar.  
Betirako.*

Iluntasunean,  
beti agertzen zarete,  
zarata handirik gabe.  
Gau ilunetan,  
baimenik eskatu gabe,  
urrun egonda ere.

### Lasaitasunaren ardura

Stop botoiari eman eta,  
azeleratu ginen,  
sarea ezin kontrolatu,  
anai handia bihurtu.

Aspertzeko betarik gabe,  
sokak astindu genituen.  
Ezinegonaren sukarrak,  
harrapatu gintuen.

Espaziotik jeitsi ondoren,  
berriz geratzeko beldurra gailendu.  
Ordutegiak streamingez bete,  
nazkatu arte.

*Non dago, non ahaztu genuen  
amesten genuen hura.*

*Non dago, non gelditu da  
lasaitasunaren ardura.*

### Serraila itxietan

Leihotik begira, gaur goizetik,  
serraila itxietan, ez dago kerik.  
Txorien hotsak.  
Egongelatik, ez da ikusten lainorik.

Askeak gara, nahi dugun eran  
libreak gara, gure barrenean.  
Katerik ez bada, inoren menpean,  
guk nahi dugun lurrean.

Ez utzi lekurik, kontrako mezuei  
Ez utzi lekurik, berri ilunei  
Zoaz kanpora, zure mundura!

*Zoaz aurrera, kontrako aldera,  
aurka datorren olatua hartzera.  
Heldu eta eutsi dauzkazun ametsei,  
zabaldu leihoak biharko hegoak.*

Nora ote goaz? Nork daki?  
Dena nahi eta, ase ezinik.  
Gure barrenera ez da bidaiarik,  
ezagutzeko gogorik.

Beldurraren arra barrenean,  
amonaren oihua ixil araztean.  
Esnatuko gara, ezinbestean  
askatasunik ez denean.

#### **Berriz zuregana**

Ilhesean joan zinen,  
ixil ixilik,  
noiz arte,  
jakin ezinean.  
Kantu artean,  
dena,  
puskatu nahirik.

Berriz zuregana helduta...

Zatoz,  
goazen aurrera,  
ero batzuen antzera.  
Nahi,  
dugun bezala,  
gaurko gaua kiskaltzera.

Eta berriz ez zaitez aldendu,  
dena aldatu da ez da berandu.  
Eta berriz ez zaitez aldendu,  
zure ausentziak zentzurik ez du.

#### **Itzuliko gara**

Itzuliko gara gure auzo bakartira,  
gozatuko dugu, lehen egin ez genuen eran.  
Non geratu zen esperantzaren argi bizia,  
bizimodu hartan eten genuen haria.

*Ta itzuliko gara berriz,  
iraganaren horma eraikiz.*

*Ta itzuliko gara berriz,  
iragana atzean utziz.*

Ez esan non izan zaren azken urte hontan,  
ze hondartza, klima, lehor edo umeletan.  
Ihes egin zenuen, hemendik urruti,  
denbora geratu balitz bezala, zu ta ni.

#### **Tatuatutako izarrak**

Iluntasunean,  
zuen izar disdirek,  
malkoak izozten dituzte.  
Ta malkoak,  
tatuatutako izarrak,  
ordezkatzen dituzte.

*Aurrera eta atzera,  
atzera eta aurrera,  
gora eta behera,  
gaur eta bihar.  
Betirako.*

Iluntasunean,  
beti agertzen zarete,  
zarata haundirik gabe.  
Gau ilunetan,  
baimenik eskatu gabe,  
urrun egonda ere.

**Lasaitasunaren ardura**

Stop botoiari eman eta,  
azeleratu ginen,  
sareak kolapsatu eta,  
anai handia bihurtu.

Aspertzeko betarik gabe,  
sokak astindu genituen.  
Adrenalinaren sukarrak,  
harrapatu gintuen.

Espaziotik jeitsi ondoren, berriz  
geratzeko beldurra gailendu.  
Ordutegiak streamingez bete,  
nazkatu arte.

*Nun dago, non ahaztu genuen,  
amesten genuen hura.  
Nun dago, non gelditu da,  
lasaitasunaren ardura.*





Aranzadi ikastolako  
5. mailako ikasleak  
Lehenengo taldea  
Saria

Bertsua

Balentina  
20

Sare sozialak



## Sare sozialak

Ordenagailuan gabiltz  
jolasten orokorrean  
baina nahiago dugula  
ibili mugikorrean.

Youtube ikusten nengoen  
eta nik esango nuke  
“tontokeria horiekin  
diru asko lortzen dute”.

Hangouts da WhatsApp moduan  
guk erabiltzen duguna  
zu hitz egiterakoan  
ez zaitez izan astuna.

Badakigu batzueri  
gustatzen zaizkizuela  
baina ez gara konturatzen  
engantxatu gaitezkeela.

Segurtasunakin kontuz  
ibili behako gara  
bestela lapurren bat gaur  
mobilean sartu ahal da.

Pribatutasunarekin  
ez ibili zu jolasten  
eta saiatuko gara  
gu oso ondo ikasten





Aranzadi ikastolako  
5. mailako ikasleak  
Lehenengo taldea  
Saria

Bertsua

Balentina  
20

Maitasuna



## Maitasuna

Nik bihotzetik maite dut  
nire laguntxo maitea,  
gustatuko litzaidake  
izatea bikotea

Nik hurrengoan dadukat  
bikotearekin afaria  
eta nik egingo diot  
benetako oparia.

Otsailaren 14an  
zabaltzen dugu bihotza  
eta ondoren barrutik  
uzten dugu gure lotsa.

Maiteminduen eguna  
prestatu zure bihotza  
inguruko lagunekin  
alde batera utzi lotsa.

Denok esaten duguna  
“EZ DUGU NAHI BIKOTEA”  
kalean entzuten dugu  
zer moduz zaude “maitea”.


Entzuten dugunean guk  
maitasunaren izena  
oroitzen gara askotan  
nork eman digun onena.

Nire bikotearekin  
gaur badaukat afaria  
erakutsi behar diot  
daukadan oparia.

Oso handia dago  
gaur nire bihotza  
“maite zaitut” diot,  
nik ez daukat lotsa







Joanes Plazaola  
Hirugarren taldea  
1. saria

Bertsua

Balantziana  
20

Normaltasun berria



## *Normaltasun berria*

*(Doinua: Abokatuak deitu berri dit)*

Itxialdiaren fartsa hauxe  
Doa ja luzeegia  
Nahiz eta jadanik berrogei egun  
Ta ez den eten haria  
Erabakiek utzia dute  
Langilegoa eria  
Ziurgabetasuna nagusi  
Ze beldur, ze tragedia  
Ez ardura eta ez azalpen,  
Dena ipuin, teoria,  
Gauza bat behintzat argi daukagu  
Zor diguzue egia. (bis)


“Zuon hobe-beharrez da dena”  
Baina, posible ote da?  
Burgesiaren ofentsibak du  
Aprobetxatu aukera  
Denak etxean egon behar, bai  
Ta industria lanera,  
Emakume asko giltzapean  
Jazarleekin batera  
Kaiola denak ez daukatenez  
Urrezkoaren tankera  
“Zuon hobe-beharrez” den oro  
Langileontzat kalte da. (bis)

Europa ere gainbehera doa,  
Ezin liteke ahaztu  
Ongizatea agortzear da  
Dena larri, dena estu  
Enpresa erraldoiak agintzen  
Den-dena beraien esku  
Honen aurrean antolakuntzaz,  
Zahurgarrienak babestu  
Azken finean, esperientziak  
Fermuki hala diosku  
Borrokatzen ez den historiak  
Amaiera onik ez du. (bis)

Krisiaren seme alabontzat  
Zein etorkizun krudela  
Hustu zaizkigu kale bazterrak,  
Asanbladak, ikasgela...  
Klaseak “normal” bideo-deiez,  
Posible balitz bezela  
Uste al dute ikasle denak  
Soilik ikasle direla?  
Garbi dakusagunez hemendik  
Argi diogu honela  
Krisian ezer gutxi duena  
Deus gabe gelditzen dela. (bis)

Itxialdiak hainbat jenderen  
Jarrera digu argitu  
Agertu zaizkigu zenbait ertzain  
Zenbait kontrolan adiktu  
Balkoitik behera zer den legala  
Edo zer dugun delitu  
Estatuak mugikorrak ere  
Jada kontrolatzen ditu  
Kaleetan jazarpena libre  
Ta inork ezin epaitu  
Osasun krisi omen zen honek  
Denok jipoituko gaitu. (bis)

Etorkizunean pentsatuta  
Gordina da datorrena  
Desjabetuon aukera ezak  
Sumintzen digu barrena  
Ezin saihestuzko galdera da  
“Aldatuko al da dena?”  
Gutxiren esku dagoen oro  
Noiz bihurtu ororena  
Denon beharra izango dugu  
Lubaki hontan barrena  
Antolakuntzaz borrokatzeko  
Kapitalaren kondena. (bis)



Jon Altuna  
Hirugarren taldea  
2. saria

Bertsua

Balantzia  
20

Koronabirusa



## Koronabirusa

Korona du izena  
birus abizena,  
modernizatu egin da  
lehen gripea zena;  
baita azkar zabaldu  
munduan barrena;  
txikia izan arren  
ez da ahulena,  
bakoitza bere etxean  
sartu gaituena.

Koronabirusa da  
Covid hemeretzi,  
Kontuz, ez harrapatu  
ez hurbildu, eutsi,  
libratu gaitezen gu  
oraindik ez etsi,  
hemeretzia ez hartu  
ez muxu, ez igurtzi  
hogeia irtengo da  
bihar edo etzi.


Mundua nora-ezean  
kaos handi baten,  
gu gau ta egun etxean  
ia ezin irten,  
sare eta medioak  
na(ha)smena ereiten  
ze dakigun guk eta  
ze darabilkiten  
bixkorrenek eurek be  
ez dakit dakiten.

Pantailari begira  
ez da serioa,  
goizetik gaueraino  
errosarioa,  
egia ala gezurra  
hori jariora!  
Non da zuzentasuna  
non kriterioa,  
kutsatu gabe baina  
a ze herioa.

Munduak ingurua  
larritxo dakusa,  
aberastasun gose  
hori dela kausa,  
goregi igo denez  
batzun statusa,  
eta jabetu denez  
behar dela pausa,  
hortarako sortu du  
korona birusa.

Munduan a ze kaos  
eta anabasa,  
sekula ez da izan  
horrelako jasa,  
gizakien eragina  
neurritik da pasa;  
game over bukatu da  
lagunok jolasa,  
eta planeta osoak  
hartu du arnasa.






Uxue Vivas  
Lehenengo taldea  
Saria

*Komikia*

*Balantzia*  
20

*Edabe magikoa*












Oihana Tabares  
Lehenengo taldea  
Saria


*Komikia*

*Balantziana*  
20

*Timi*








Maryum Bibi  
Bigarren taldea  
1. saria

*Komikia*


Balantzia  
20

*Ez laga biharko gaur egin dezakezuna*

Ez laga bihariko gaur egin dezakezuna








Muhammad Abdullah  
Bigarren taldea  
2. saria


*Komikia*

*Balantzia*  
20

*Gezurren ondorioak*









*Jon Altuna*  
*Hirugarren taldea*  
*1. saria*

*Komikia*

*Balantziana*  
*20*

*2020 San Ferminak*





*Jon Altuna*  
*Hirugarren taldea*  
*2. saria*

*Komikia*

*Balantzia*  
*20*

*2020 urte borobila*



